

GIZA-BIZIA

GIZA-BIZIA

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

Depósito legal: BI 2.437 - 1968

Sarrera

Gi'zonak, Egi'lle nagusiak eman zi'zkion doai-etatik, ederrenetakoa du bizia. Ez gizonak bakarrik, baita izadiko landare ta abereak ere. Or zakur bat. bizi dalarik, izaki dotore, zoli ta txairoa dezu; baiña, il ezker, or datza ezerá-riko itxura gabe; orixe ilda, trakets. Begira ¿zadia ere, negu-aldian, otz, itxusi, bizirik gabe. Udaberritik negu-biotzera, nolako aldea.

Ederra da bizia, batez ere abereena. Ta auen artean gizonarena. Bai, arrigarria! Gizonak aurre-ra dagi bere jakintza-sailleun, baiña ba-du oraindik zer ikasi naikoa berarekin daramen bizi-barrutian. Zer daki, izan ere, bere gorputzari buruz, arima albora utzirik ere? Oso gauza gutxi. Pentsatu al dezu iñoiz ta galdetu: «Zer dakit nik nere buruaaz?» Bai, ba-du gizonak oraindik zer ikasia, ta bere gauzarik beñenataz izan ere!

Giza-bizia! Ta au besteri ematea? Zeregin donea, sakratua, iñondik inora ere. Ta bakoitzaren nortasunari ertz guztietatik arduraz begiratzen zaion kondaira-une ontan, ezta au saiets utzi nai. Bizia emateko arazoa senar-emazteen eskuetan jarri zuen Jainkoak, mundua ta munduko gauzen ondoren, gizona sortu zuenean. Munduak egunez-egun dagian aurrerakuntza arrigarri ontan, ba, beste gauza askoren gaiñetik, senar-emazteak bizia besteri emateko duten arduran begiratzen zaio, ta arretaz begiratu ere.

Sendia maite-batzar degu, gurasoak ela seme-alabak osotzen dutena. Ta gaur, bakoitzaren ondo izatea —baita gizartearena ta batez ere kristauna— ezkonduen ta famili ondo izatearekin oso osorik bat-egiñik dago. Origatik, kristauak eta sendi-batzar oni lotsa dioten guztiak poztu oi dira egiazki, maitasunezko ta bizi-begirunezko arlo ontan, au da, guraso ta senar-emazteak beren egitekoan jarraitu dezaten, erri-agintariak ela, errez-bideak jartzen dituztela ikusita.

Alere, eraikitze (instituzio) onen duintasuna ez dago gaur toki guztietan bear lukean bezin dizditsu; gizaldiak zear, urteak joan eta urteak etorri, ainbat makurkeri sartu zaizkigu sail ontan: emazte askotza (poligami), ezkonbanantze edo bizi-alarguntza, maitasun jareñi 'deritzaiona, ta beste olako itxuskeri batzuk. Bestetik, ezkonduen maitasuna norberekeriz, atsegin-zalekeriz eta sorpenaren kontrako ekandu ta oitura debekatuz zantarlurik gelditzen da.

Gaur, gaiñera, munduan degun ekonomi, giza-sikoloji ta erritar egokerak, naste ikaragarriak ekarri dituzte familiaren kontra. Lurbirako errialde batzuetan, erriak azi ta ugaritzetik sortutako buru-ausle la istilluak ere eztira kaskarrak. Ta guzti onek, gain-begiralu bat bota ezker, kezka piztutzen du giza-barrenean. Ba-da, alere, gauza bat ezkonduen sendi-alkarte onek duen

kemena ta sendotasuna erakusten diguna: gaurko gizartearen aldaketa aundiak, ainbat oztopo sorcu arren, asko ere askotan erakusten dute, av.nitz eratara erakutsi ere, eraikitze orren benetako izatea.

Batikano'ko lí'garren Eliz-baizarrak gogotan izan zuen au, ta ortaz familiari ta ezkon-mailasunari buruz ainbat gauza eztabaidatu ta ebatzi zitun. «Senar-emazteak —dio— alkar eman ta arlu oi duten giza-egintzalik sortzen da, baila gizartearen aurrean ere, Jainko-legeak indarturiko eraikitze bal. Lokarri done au, naiz senar-emazte ta seme-alaben naiz gizartearen onari begiratu, ez dago giza-erabakiaren mende. Jainkoa bera da, ba, ezkontzaren egille, askotariko on eta elburuz jantzi duena; ta au, gisadiak jarraitu dezan, oso garrantzizkoa degu, bakoilzaren oraingo ta geroko bizitzarako, sendi beraren ta gizarte osoaren duintasun, iraupen, pake ta aurrerapiderako. Ezkontz-eraikitzea ta senar-emazteen alkar maitasuna, berez berez, seme-alabak sortu ta ta azitzera zuzenduta daude» (Gaudium et Spes, 48).

Baiña arlo onen ingurumari —esan degu— istillu gogorrek jaiki dira, azken urteotan. Eta ez, ain zuzen, erri atzeratuetan, kulturaz, diru-joriz ta aukeraz ondo xamar daudenetan baizik. Gertakari au dakusgu gizartean: gizasemeak aukeraz errezago bizi ta lasaitasun geiago nai. Ezkontzaren aurkako tresna ta biderik asko, beintzat, ortik sortuak dira.

Vl'garren Paul Aita Santuak, oraintsu, enziklika bal atera zigun —Humanae vitae— ezkontzari buruz. Ezta ondo artua izan leku guztietan. Kritika gogorrek egin dira bere kontra, baita katolikuen artean ere. Nun latzenak? Prantzia'n, Holanda'n, Ingalterra'n, I par,-Amerika'n... Ez dira alderdi oietan gaizki bizi, baiña Erroma'tik

etorri zaigun idazki ori gogcnregia dala diote; egokiago izango zala noski, bai gizartearenlza bai Elizarentzal, bide errezago bal, Ebanjelio maillara jasota.

Gaur, alere, giza-nortasuna, askatasuna ta abarago betean eskatu oi ditugu. Ta Aita Santuaren enziklikak gizonaren alde jokutzen du, giza-maitasunaren alde; ez klean nasai dabillen gizonaren alde ere, orrek bere burua aldeztuko baitu. Ba-da beste gizon bat, bidean datorrena, indar bagea, erru bagea, izan bear duena. Orreri, beraz, eman bear zaio laguntza.

Baita laguntza bear dute bizia mundura ekarri bear duten senar-emazteak ere. Auek bear dute laguntasuna. Ta Aita Santuak oiek jagon ta zaiizeko eman izan du bere oro-idazkia, gizaldi autako agiririk garrantzitsuena.

Emen dituzu, irakurle, pentsamentu batzuk, giza-biziari, ezkonduen maitasunari ta beste zerixo batzuei buruz eiotaakoak (I). Baila aipatu degun enziklika ori ere osorik dezu berton, zeuk irakurri, aztertu ta ausnartu dezazun, ezer ez kendu ez geitu gabe.

Tarteka, baita, sartu ditugu olerki baizuk ere; aurtengo bagillaren 16'an, komentu ontako Karmen'go Amaren Irudia koroatzea zala-ta, eratu gendun Lore-Jokura bialdutakoak dituzu, liburuxka au irakurtzea errezago egin dakizun.

Larrea'n, 1968-XI-21'an

Aita Onaindia

I) Liburuxka onen lenengo zatiko pentsamenturik asko *Fêtes et Saisons* deritxon aldizkaririk artuta daude.

SORTZEA

«AZI TA UGALDU»

Beiñola batean, Jaungoikoa ezik, etzan ezer. Eia Jaungoikoak, bere aintza ta atsegiñerako, guk orain ikusten ditugun eta ikusgarri etzaizkigun gauza guztiak ezere-tik sortu ta atera zitun.

Eta ez nolanai ere. Eder ta neurrian baizik. Nola ordea? Ez dakigu. Baiña, ziurrik asko, nekazariak azia erein oi duen antzera, nunbait. Jainkoak jarri zitun len - aziak; gero, pixkaka pixkaka, txikitik aundira aldatua!, gaur ikusten ditugun egokerara etorri ziran. Au da, Asiera deritzaion liburuak dioskunez, izaki guztiak urrenez urren, Jainkoak deituta, ondozka agertzen zaizkigu izadian. Jainkoaren arnasa zan, zeru-lurrak egitean, sortzaille ta eragille. Lenen, goiko ta beeko nasi-masia bereizteko argia agertu zan; gero, ura, lurra, landarak eta

abereak. Eta azkenez, abere-luzapen aparteko bezela, gizona ta emakumea.

Izaki bakoitzak bere zeregiña du mundu onetan; beekoak eta goikoak, txikiak eta aundiak. Baiña batez ere izaki bizidunak. Landarak «beren kautan daramate azia», ta bakoitzat beste askori ere asiera emango diote. Abereak ugari dira, ta beren barrenkemenez askoz geiago ugalduko dira. Azia daramate auek ere berengan, kidekoak sortzeko azia. Jainkoak gaiñera esan zien: «Azi ta ugaldu zaitezte». Au, berarizko onespena eman ondoren.

GIZONA ETA EMAKUMEA

Onelaxe, apurka, guk gaur ezagutzen dugun izadia azaldu zaigu. Izadi ta munduaren buru, berriz, gizona jarri zuen Jaunak.

Au esan zuen: «Egin dezagun gizona gure antz eta irudiko». Gizona, beraz, ertz biren erdian daukagu: arnas ta soin dala, ezpirituzko ta gorputzezko munduaren erdian; Jainkozko arnasa du barnean, eta abere gorputza darama azaletik. Jainkoaren aintza du bekokian dizdizka. Ta argi egin dezan krisaillu berezi bat du gain-gaiñean: diran guztien buru dalarik, beronek zuzendu bear du izadi osoa.

Eztegu giza-semea beste izakien antzera egiña, Jainkoak bere antz eta irudira egiña baizik. Olan esaten digu Liburu santuak. Eta ondoren darrai: «Gizon eta emakume egin zitun». Gogorrango nunbait: «Ar-eme sortu zitun». Ausart eta bizi dio bai, gizakundea ta emakundea ondo berezi nairik bezela; au da: ar eta eme zirala, ta egiteko beñ-berarizkoa zutela gizadian.

Gizona naiz emakumea, biok Jainkoak bere «irudiko» egiñak, irazanak dira. Baiña gizona bakarrik ezta Jainkoaren irudi oso, ezta emakumea bakarrik ere. Biok osatzen dute alkar; biotatik bakoitzak oartu ta ikusi dezake, besteagan noski, bata ez besteak ez duen Jainko dirdira arrigarria. Gizona ta emakumea, izan ere, alkar osotzeko izakiak dira: bata-batea bear dute. Asiera liburuak argi dio: «Arrezkero, gizonak bere aita-amak utziko ditu, bere emazteari itsasteko ;ta biok aragi bat biurtuko dira». Berdin dirakurgu Berri Onean ere. Ortik, ba, gizona ta emakumea alkar maite izan dezaten egiñak daude. Ta Jaungoikoak nai duen

ezkontza, ezin banatuzko zerbait da Jainkoaren asmoetan.

Eta zertan bir-esanik ez degu gizaki ta emaztekiaren arteko batasuna, guztiz garrantzi ta gora aundikoa jango dala gizadikondairan. Jainkoak esana baita: «Azi ta ugaltu zaitezte; bete zazute lur-azala». Au da, izan emakor, eman bizia. Bion maitasun bizitik sor bitez ugari seme-alabak.

Jainkoak esaniko itzok, lenengo giza-bikoteari, ots, Adan eta Eba'ri zuzenduak izan ziran. Baiña aientzat bakarrik ez ziran; aien ondorengo guztiai ere zuzenduak ziran noski: noiz edo bein, aldiak iraulka, sukalde bat osotuko zuten guztiai ere bai. Aiei, beren ezkontza egunean esandako itzak, gaur eta biar eta beti ezkonduko diran guztiai esanak ditugu.

Itz ederrak: «Azi ta ugaritu». Senaremaiztean maitasuna emakorra izan dedin, Jaungoikoak nai du. Bi biotzon maitasuna maitasun sortzaille izatea nai du. Egiteko zoragarria, Berak duen aiñakoa eman die sen ar-ein azteai ere, bizia eman, zabaldu ta ugaritu dezaten: dei dagie Berak duen egiteko sortzaillera. Gauza aundia, egiz! Senar-emazteak or dauzkagu Jainkoaren baratzean langille. Arekin bat, besoz beso ari dira azieirentza arloan.

ETEN GABEKO LANA

Gizonak eta emakumeak alkar artzea, au da, ezkontza ta onen emakortasuna, izadia-

ren giltz bezela agertzen zaizkigu. Landarak eta abereak emakorrak dira, ta au Jainkoaren asmo ta burubideetan gora aundikoa degu. Izadia ezpaita mukulu aundi bat, geldi ta ezer egiteke dagoana. Ez, izaki bakoitzak bere arazoa du, bere egitekoa, bere egikizun sortzaillea batez ere, Jaungoikoa-gandik artuta. Txit arrigarria Jaunaren asmoetan landare ta abere-mota guztien edesia. Zeinbat direan! Nola bizi ta ugaritu! Iriki zazu, irakurle, izadi-jakintzazko istori bat eta, zerbait sakondu ba'dagizu, guztiz arrituta geldituko zera.

Gizonak eta emakumeak ere, Jainkoaren naia beterik, gizadiari bizia eman bearra dute. Abereai naiz giza-bikoteari, Jaungoikoak itz berdiñak zuzendu zizkien: «Azi ta ugaritu zaitezte».

Bi ugalmen auen artean, ala ere, ba-degu aldea, ta errotikoa ain zuzen. Landare ta abereen ugalmenak ez dakarkigu mundura landarak eta abereak baizik, eta auek gizonaren mendean jarriak daude. Giza-bikotearen ugalmenak, ordea, seme-alabak dakartzki mundura, beren gurasoen antzera Jainkoaren irudi diranak. Seme-alabok, berriz, ez dira beti gurasoen mende ta zerbitzuan ere egongo; ez, beren egitekoa Jainkoaren irudiak lur gaiñean ugaritzea da.

Seme-alabak, beren aurtzaro ta lenbiziko gazte-aldian gurasoen mende bizi bearko dute; baita, dudarik gabe, garako egin diranean ere, itzala, maitasuna ta laguntza zor izango die beren aita-amei. Baiña, or-

tik kanpora, gurasoen uste asmo guztien gaiñetik dagon goi-dei berezi ta berekia dute.

Senar-emazteak, seme-alabak sortzen dituzte; baiña seme-alaba bakoitz oiek, azken-erabakiz, bizitzara dei egin dien Jainko-maitasunetik sortuak dira.

PEKATUA

Lurra, noizbaiten, atsegin-baratz zan gizonarentzat. Goi ta be, dana poz eta atsegin. Ezertariko oiñaze, kezka ta eriotzarik gabe. Baiña etsaia sartu zitzaigun tartean: pekatua. Ta, geroztik, or dabilkigu gizona estu ta larri. Lenengo giza-bikoteak ere izango ditu bertatik ondoren biurriak: lurrak ez dio frutua errez emango, len bezela, izerdia ta lan gogorraren bitartez baizik. Emakumeak samitetan erdi egingo ditu seme-alabak. Senar-emazteak ere ez dira izango aurrerantzean Jainkoak sortu zituan langoxe bildu ta alaiak, norberekoiz ta arrokeriz beteak baiño; alkar biltzeko duten aragi-garamurra ere ezta izango geroztik maitasunaren eta ernalduraren zerbitzura-ko bakarrik.

Guztia, ala ere, ez dago galduta. Giza-bikotea atseginbaratzetik jaurtiaz batera, gizonak «Eba» izena ematen dio bere emazteari. Zergatik ote? Idazteunak argi-diosku: «Izaki bizidun guztien ama dalako». Adan eta Eba, atsegin-baratz edo paradisua uz-

tean, ezkontz-korapilloz loturik daude. Iza-
tez zituzten beste doai asko galdu arren,
sor-erazle ta aita-ama izatea ez zitzaien ken-
du. Eba, izaki bizi guztien ama Izango. Jain-
koaren onespina, bedeinkapena berarekin
du ortarako. Ezkon-mezatan argi irakurtzen
degu: «Au ez zitzaion kendu ez jatorrizko
pekatuz, ezta ugolde aundiarekin ere».

Oiengatik Jaungoikoaren onespina di-
rau. Ta Eba'k, lenengo aldiz semea euki-
tzean, pozez gaitzezka dio: «Giza-seme bat
eratu det, Yabe'ren lagun tasunez». Poz-
deadar, garaipenezko oi! Baita esker onez
betea ere! Bai, jaio dan seme au Kain det;
psetik etorriko dira beste asko: Abel, Set

eta gaitzerakoak. Eta ugalmen au, soifia azi,
koskortu ta aundi tzean, jtz batean, bere
garan txit ezkutua baldin ba'dezu ere, ezta
gutxiago bere ondorenetan; pekatua bai xi-
tzaigu tarte sartzen, eten gabeko lanean.

Baifia azkenez pekatua ere goitua izango
da. Zeruko santuak, emengo kondaira-egu-
nak bukatutakoan, Jainkoaren aintza abes-
tuko dute sekula ta beti; au da, izatera dei
egin zioten Jainkoa goretsiko dute atertu
barik. Jainkoaren itzak, azi ta ugaltzekoak
noski, orduantxe aurkitu izango du bere
bete-beteko egiztatzea, baita garaipenak
ekarri oi duen poztasun osoa ere.

«Maitatzea, ezta ariñeketan egiten dan
zerbait.»

Mari Noel

«Emaztea... ta ama batera, dena dezu bat.»

Ancelle

POZARREN GATORTZUZ, AMA

Karmel'go Ama maitearen
begi zolien samurpean,
kristiñauen fedeak
ba-dau euskarria:
Larrea'ko praillien
anaidi argia.

Munduko iskanbilletik landa
otoitz, berbaldi ta ekintzaz
belaunik-belaun jabón
dabez, karmel'darrak,
gure Erriko ekandu
eta birtuteak.

Maite dogu Karmel'go Ama,
mendi-barrengo larre ezean.
Praille zintzoai esker
(arbasoakandik)
eraspen au, gurean,
ez dago etenik.

Bureskunde-jaiotan, Ama,
zeugana gatortzuz, pozarren,
biotzez eskintzera
maite-burestuna:
poz, negar ta otoitzez
egin-antzez-lana.

Zeure mesedeak gogoan
kantu ta otoitz gatortzuz, ba.
Mundu gaikoia bego
lurrera begira.
Kristiñau-legez guk, nai,
zeurekin, aurrera.

Zeure kutuna bularrean
ez gara ezeren be bildur.
Zuganako jaierak
Bizkaia'n iraungo:
Gure bidean, esi,
etsaiak ezingo.

Zure bureskundea bei te
maitetasun-erakutsia.
Erregin nai zaitugu,
arima ta gorputz:
Aldi naastetsuotan
zu barik, ume-zurtz.

Agur, ba, Karmel'go Ama on,
geure poz ta itxaropidea!
Azkortu Larrea'ko
prailleen anaidia,
jarrai daien edatzen,
zeruen argia.

Aurraitz

BIZIA EMAN

Arrezkero beti —ta mundua mundu dan arte olaxe— gizona ta emakumea alkartu egin dira. Zertarako? Ba-dakigu. Jaungoikoak emaniko lanari ekiteko; bizitza berriak eratu ta mundua ugaritzeko.

Gazte bi ezkondu zaizkigu, ta sukalde berri bat antolatu dute beren ezkontze ta alkartzez. Maitasuna dute lokarri. Dena dakusate eder, zoragarri; beren ezpain ertzetan zorionaren irripar goxoa loratzen. Egunak, astoak, illabeteak joan dira, ta maitasun-lokarriz bildutako bi biotzak frutua eman dute: seme bat agertu da sukaldean. Izaki berri bat! Lenengoa! Egun nabaria egiaz sukalde gaztean! Senar-emazteak gaurgero ez dira senar-emazte bakarrik. Une oritatik aita ta ama dira.

Eta eskola berri baten sartuak dira. Ortxe ikasiko du aitak, egunean egunean, baktzean pixkat, aita izatea zer dan; amak

ere berdin, aurtxoaz aziaz dioalarik, igarri, estalgetu ta ikasiko du amari dagozkion ardurak, ama izatea zer dan. Amatasuna! Amatasuna! Jaiotza berri bakoitzak bete-bear eta erantzunkizun berriak dakartzki, baiña poz-aldi berriak ere bai. Orrela azaltzen dute bikote batzuk. Oraindik ezkonberri dira auek; aiek, ordea, ezkondata luzaro bizi diranak. Denak agertzen digute mundura seme-alabak ekarri dituztelako poza.

LUDI ARRIGARRI BAT

Ume pilloa daukan aita. Mundu txiki bezela da beretzat aur berri bakoitzea. «Laster, amar egun barru —dio— nere emaz-

teak aur berri bat emango dit. Lau ditugu lendik ere. Biotzikara leunez begiratzen ditut aren itxura baldrasa, aren berna-zangoen puztua, aren igiera trokotsak. Eta berak ere, moldakaitz eta itxusi aurkitzen detala, usteko du sarri. Baiña ez, orrela ere txeratsu, itz goxoz ta samur agertzen nakio! Ala ere, tira, maiz ez dakit nola au berari adierazi. Gizonak ere, ba, bere lotsa, bere erabidea du; ta emakume batek ez digu errez ulertzen.

Dana dala, pozik bai ikusiko nukeala xorta ura gabe. Aurra be bean du lendabizi, ta oso gaitz egiten zaio berarekin ibiltzea. Baiña artegaz ere bai nago. Nola arterik gabe? Gauzarik asko jakin nai nituzke. Nolako arpegia izango ote du aur berriak? Seme ala alaba izango ote? Edurne'ren antzera begiak urdin eukiko ote ditu, ala beltzak lñaki'k bezela? Eukiko degun au bostgarrena izanik ere, X ordua urbilduaz doan birtartean, gure artegatasuna Aitor, gure len-semea, jaio zanean bezelakoa da. Berdinberdiña, bai!

Gogoan det oraindik Aitor'en jaiotza. Nere emaztea etzan aspertu oi egunak zen batzen; eta bera, gure aurtxo begi aurreratu zitzaigunean, ni ez nintzan nekatzen aren arpegikera, aren musu-belarriak, esku-txoak, ankatxoak, aren gorputz osoa mires-ten. Emazteak, egia, parre egiten zuen nere lepotik. Guztiz arroska aurkitzen zan, jakiña; ala ere, bazuen, agiri zanez, ondamu ta bekaitz pixkat ere. Ain dezu ez-

kutu ta naspilla ama izatera eldu dan emakumearen biotza...

Aitor bait-zan ain eder, ez genduan uste oberik izango genduanik! Edurne jaio zanean, ordea, bien artean bat aukeratu bearra izan ba'genu, larri ibilliko giñan. Orobata lñaki eldu zanean ere. Guretzat, ezin dezakegu ukatu, seme naiz alaba bakoitzaren jaiotza izan zitzaigun beti alaitasun-zio ta motibu berria. Bat-berak ere ezta besteen antzik, ez gorputzez ez barne-gunez. Arri-turik gauzka onek; aita ta ama berberak izan, nola jaio ditezken, gure seme-alabak bezela, izaki onen ezberdiñak.

MAITASUNA AZI TA UGARITU

Nik bai poza asmatu —dio emakume batek— nere sabelean aur bat neramalaren segurutasuna izan nuen egunean! Oraindik izaki txiki ta illuna, benetan, Joseba'ri nion maitasuna —baita begiera ere— egun osoan gcorazten zidana. Nik, igarri gabe, esker-rrak eman oi nizkion Joseba'ri, bein edo bein ama izango nintzala esan zidalako. Eta askotan, biok alkarrekin, aur onetzaz itze-gin oi genduan; bai, oindiño nere barnean gorderik zegoen aur onetzaz, guretzat oraindik ezagun etzan onetzaz. Eundaka asmo, burubide ta erabaki eio ta artu oi genitun, oraindik jaiotzeko zegoen aur oni begira.

Emazte gazteak izan oi duten bezela, nik ere ba-nuen beldur pixkat erdi-eguna gogora ekartzerakoan; baiña Joseba nere alboan izango nuela jakiñik, arnas ta indar berriz bizkortzen nintzan. Dena zijoan ondo: ez det, ez, iñoiz ere aitzuko Karla'k, jaio-berri, bere lenengo negar-oiua jaurti zuen une ta momentu zoragarria, ezta Joseba'ren begitu samur birloratua ere, nere besoetan bere semea eskeiñi nionean.

Ta emen gabiltza gaur aita-ama guztien zori ta gertakari ontan sarturik, bizi-itxasoan zear. Ezin genezake, onezkero, atzera egin. Aurrera beti! Opa izan genduen seme au ta geure maitasunetik jaioa degun au erantzun-bear bat degu, naitaez, bizitza osorako. Aitatasunak eta arrotasunak berekin ditun poz-atsegiñak somatu ta nabari alean, are argiago dakusgu gaiñ degun erantzun-bear orren joan-etorri ta ondorena.

Karla'ren etorrerak, ezin dezakegu ixillik euki, jantzi berriz apaindu du gure bizitza. Gure maitasuna ots-otsean azi ta indartu ba'litz bezela, betarte berri bat iritxi balu bezela. Karla'ren jaiotzak beraz, tink eza-rrita, beti-beti iraungo du gure biotzetan.

EZ GERA ABERATS IZANGO

Nere aldetik ba-liteke bear bada parregarri izatea; baiña gaur ez nuke len bezelako

segurantzakin esango: «Zortzi seme-alaba dauzkat». Onako edo erantzunaren beldur naiz: «Oa ortik; erruki nakio ire emazteari. Ez geiago olako jolasik».

Eztet uste, alere, senar burugin eta nerekoiegia naizenik. Ogetaz urteak daramazkigu ezkonduarik, eta geure bizi-modua oheratzearren lanari lotua bizi naiz atertu gabe. Sukalde aukerakoa dute nere seme-alabak: bear dutenetik etzitzaike palta ezertxo ere. Ta *nere* emaztea, etxeko andre mazal arduratsua baita, ezta egundo ere uluka ta illeta jotzen ibilli bere adur-zoria dala-ta.

Urte askuan ez gera —nolabait esan bear— alkarrekin kalera irten: ez genuen geure sema-alabak nori utzi. Ta orain, errez egin genezakean arren —seme-alabak azita dauzkagulako—, gutxitan baiño ez degu egiten, diruz urri ta exkas gabiltzalako. Nik bada bizi izateko aiña irabazita ere, ezin genezake erokeririk egin gelditzen danarekin. Garbitzeko makiña bat nere emazteari eskeiñi al izan orduko, luzaro ian eta lan egin bear izan det. Panparroikeri aundi barrik bizi naiz, edo obeki esan: beartsuen maillan; baiña ez gera ezertaz damutzen, gure benetako aberastasun gere seme-alabak dira-ta.

Ogetabi urte auetan izan degu kezkarik eta larrialdiak; beti, alere, bizi izan gera gaztetasunez inguratuak, irriparez eta kantuz goxotuak, poz-atsegiña ren euripe samurrean. Etxe-lanak egiteko ez degu egundo ere ordaindu al izan neskatxik: geure seme-

alabak, aziaz dioztelarik, etxeko lanetan esku artzera oitu izan ditugu.

Gure guraso-lana ez da oraindik bukatu. Oindiño momentu zail garratzak izango ditugula, ba-dakigu; baiña uste on eta itxaropenaren besoan indarturik bizi gera. Ez gera sekula ere damu izan zortzi seme-alaba izanaz.

SEME-ALABAK IZATEKO BAKARRIK EZKONTZEN OTE DA?

Bikote batek, ezkondu ezkerotzik, sutegi edo bizitza bat, abi bat egin oi dute, berez-berez egin ere. Sutegi au, lenengo senar-emazteak osotzen dute, ta gerotxoago, beren batasunetik datozten seme-alabak. Guztiak bat egiñik, urteekin aziaz dioan sendi edo familia dagite. Seme-alabak, erantzun-bearra dutenak dira; eztira gauza ere, nor baizik. Eta ez da errez, nor au, ots, seme-alabak azi ta ezitzea, bear bezela beintzat. Lan pizgarria bai, baiña nekeza, buru-uka pen asko eskatzen duena.

Galdera bat, alere. Seme-alabak izateko bakar-bakarrik norbait ezkontzen ote da? Albait eta semerik geien eukiteko, bear bada? Ezkonduen maitasunak ere, ez al ditu eskaera bere-bereak? Ezkontza guztiak, seme-alaba askodun familiak eratzera deituak

ote ditugu? Ikusi, ondoren, senar-emazte batzuk zer dioten. Eta, azkenez, ezkontzako sakramentuari buruz oar batzuk.

EZ GERA TRESNAK

Gai oni gagozkiola, gaur batez ere, idazki txit jakingarriak artu oi ditugu. «Ez —dio emazte batek—, ez gera ezkontzen seme-alabak izateko bakarrik. Orrela ba'litz, emakumeok ortarakoxe bakarrik balioko genuke. Urtean urtean, ogei urte ta geiagotan, seme bat eukitzea elitzake errazoi gabea izango. Alere, taiu gabea ta eziña litzakigu ori. Izan ere, nork aziko luke olako famili bat?

Ez, gure arazoa ezta aurrak munduratzea bakarrik; azi, jaten eman, jantzi, eskolatu ta gizon egitea ere, geure gaiñ deguna da: bat, bi, naiz bost gizon egin bear ditugu. Ta edonork daki, egun-argia bezin ditzikor baita, kopuru aundiko naiz aziegiak diran familikoen buru-auste ta istilluak, seme-alaba gutxiagorekin nasai bizi izango lira-ken senar-emazteena alegia. Edo-ta —zeinbat ez ote dira?— izenik ez duten etxol eta txabola zuloetan moltzotzen diran aietakoen.

Aurrak ere, aunditu ta kaskondu ditezen, beren maitasun-giroa bear dute; ez gero

batek bakarrik, bakoitzak bere nor danez, ez moltzoka, baizik. Bai, ark naiz onek bizi izateko toki pixkat bear du, naiz-ta askorik ez. Eta nola iazn liteke ori etxe-zizku ta gelak ain estu-medarrak dirala, alkarren gaiñ eta bekoz-beko, zirkiñik ere ez egiteko moduan bizi diranean? Nola diteke, amak, etxeko zeregin eta lanakin txit zanpatua, bere seme bakoitzari bear lukean bezela zerbait emateko, bere denbora-poxi bat noski, astirik ez duenean?

Ezkontza bakoitzak, nere iritziz, bere indarrak neurtu bear lituzke. Onak ez du esan nai Jainkoagan usterik ez degunik. Buru buztanka: aintza ta omena ematea dezu. Berak ez al gaitu errazoidun izaki egiten?

EZKONDUEN MAITASUNAK BERE ESKABIDEAK DITU

Ezkondutako emakumea ezta bakarrik bere semeen ama; senar bat be ba-du. Ta arekin ahaztutzea ezta litekena. Bi nortan aragi bakar dira, ta biotz bat. Ezin, beraz, alkar bertanbera utzi.

Emaztea erdikide degu senarrakin seme-alabaekiko erantzun-bear latzean. Senar-emazteak, beren alkar maitasunean, indarra aurkitzen dute; geiago, barne-arnasa ere bai —ta noiakoa bear dan askotan— beren

aurrak egunik egun azi ta ezteko, aurrera eramane al izateko.

Maitasuna, suarekin berdindu oi da. Sua, erregarria emanik, zaitu egiten degu. Sukalde naiz etxe-bizitza bat, au da, famili bat, pixu-berdindua izan dedin, seme-alabak ez dituzte beren gurasoak irentsi bear. Ez, auek naitaez beren bizitza ere egin bear dute, ortarako bear duten astia arturik; eta au, beren maitasunaren onerako, beren seme-alaben onerako, sukalde osoaren onerako.

Senar-emazteen maitasuna degu, noski, etxeko sugar bizi-bizia. Maitasun orrek, ezkontza barruan, azi, geitu ta eratu bearra du. Azi ta aunditu, bai, ezkontzako bizitza osoan zear. Au ez det uste erokeri edo bear eztanen bat esatea danik. Jainkoak ez al du ezkontzea jarri senar-emazteen zorionerako ere?

SU-ZOKO BAKOITZAK BERE DEIA DU

Onela aitortzen digu sendagille ezkondu batek: «Ezkongai geran bitartean errez iruditzen ditugu ainbat seme-alaba eukitzea ta olakoak. Ameslari agertzen gera. Asmo ta erabakiak artzen dira; baiña, geienetan, bizitzeak nastu ta gainbera **botatzen** dizkigu. Emazteak eta **biok, ezkondu aurretik,**

bost edo sei-seme-alaba nai genitun. Iru dauzkagu, ta berakin gelditu nai genuke.

Auzotegi bateko sendalari naiz, ta ez det neretzat minutu bat ere artu al izaten. Nere gaixoak irentsi oi didate, esan oi danez, denbora guztia. Ozta-ozta daramat familiko bizitza ere, ta nere emazteak eta seme-alabak ongi oartu ta konturatzen dira onetaz. Bizimodu ito au etzait egoki. Ez, iñolaz ere!

Ikasle nintzala, barne-deiari jarraitu nairik, bizibide bati oratuko ta osakintza aukeratu nuen. Pozik nago ontan, berari emana ta lotua bizi naiz osoan. Ezkondu gabe gelditu bear ote nuen? Etzait iruditzen. Maite det nere emaztea, maite ditut nere seme-alabak ere. Baiña ba-da gero ta argiago ikusten dedan zerbait: ez det, egiazki, famili askodun aita izateko garrik.

Su-bazter guztiak daudela, uste det, bizia jori ta esku zabalez ematera, Jainkoak deituta. Baita uste det, ezkondu guztiak ez dutela dei berdiña ere, denak ez daudela sendi askodun famili bat osotzera deituak. Auzi onetan, nire emaztea ere, osorik dator nerekin.

EZKONTZA, MAITASUNEZKO SAKRAMENTUA DEZU

Erabaki degu: ezkontzen goaz. Zer dala-ta? Alkar maite degu. Erantzun ona, ziñetan. Ezkontza sakramentu bat da, maitasuna sakratu ta onesten duena.

Oi bezela seme-alabak izatea da senar-emazteen deiaren zatirik beiñena. Jainkoak antolatatu zuen ezkontza sortzerakoan. Elizak auxe gogorazten die ezkongaiak sakramentua artzen duten une berean. Ezkonduen maitasunak aunditu bear ditu, ta zabaldu arrigarriri, famili baten goibe ta neurriak.

Ba-dira alere, senar-emazteak nai izan arren, seme-alabarik ez duten ezkontzak. Olako ezkontzak eztu origatik bere barne-indarra galdu. Seme-alabak munduratzeari ezkontzaren elburu bakarra; baita ba-du jo-mugatzat, oso berezitzat, Adan'ek eta Eba'k atsegin-baratzean alkarrekiko euki zuten prestutasuna senar-emazteen maitasunari ematea ere.

Seme-alabak mundura ekartzea, ezta naikoa. Azi ere egin bearra degu, gizon biurtu, kristau-bizitza eman. Eta maitasunezko egintza arduratsu au osatu dezaten, senar-emazteak, beren alkar maitasunaren eta biotz zabaltasunaren esku-arte ta eginbide guztiak naitaezko dituzte.

Alik eta semerik geien mundura ekartzeara ez daude beartuta ezkondu bizi diran andre-gizonak. Ernardura, sortzea bezela, ezta nai ta naiezko egintza, azkea baizik; au da, maitasunezko egintza.

Sutondo guztietan auzi au aztertu izan da: aziaz dihoan familian alik eta oreka ta neurririk obeena zaindu al izateko, jaiotza batetik bestera zenbat denbora igaro bear duen, alegia. Urte bi edo iruko epea, egokia dirudi.

BIZITZA EZKUTUA

Azia,
aizetara jaurtitzen da ugari;
gero, estaldu, lur-azpian gorde.

Otz aundiak, elurrak,
Il egiten duela dirudi.
Neguko epe luzeen geldi egona!
Eriotz-ixiltasuna soro gaiñean...
«Gari-alea jltzen ez baldin ba'da...»
Eta, alere, bertan eratzen da
gure maietako ogia.

Ama, etxe barruan gorderik,
bere lagun, jai ta batzarretarako
ezkutatu zaigu oso-osorik.
Amatasunaren gau luzean sartua,
agur dagio pixkaka pixkaka
maite zuen guztiari. Guztiz erantzi
ta iltzera doala uste du, aurki.

Ta, alere, bere errai-muiñean,
ta gero bere biotz-ondoan,
sukaldea, aberria, elizea ta zerua
beteko dituzten bizitzak
poliki-poliki eratuz dijoazte.

Ama ¡zango ote? Gure maite-muiñoan
zure arnas sortzaillea, ene Jainko,
berriz ere igaro ote zaigu?
Bildurra ta poza,
bai, aukeratua ¡zanaren poz zorakorra..

Senar: atoz nere eskui-aldera.
Itz dagizut. Aditzen ote, esaizu?
Begira..., aurtxo bat, bat geiago
gure supazterra ugaritzera.

Emen izango zaitut, ezta?
Etzera askorik urrutiratuko?
Lagun zakizkit... Ain da eder!

Ancelle

Bizia ematea, zer ote degu?

Ez aurrak munduratu bakarrik. Geiago ere bai: azi egin bear dira, eskolatu; ekin eta ekin, apurka apurka, garako, eldu ta nausi egiñazo; beren barne-muñetan siñis-mena erne-azi, kulturaz ta goi-jakitez orni-tuak. Lan au gerorako utzi eziña da, aziera ta egiazko edukazioa lenengo egunetatik asi bear da-ta. Urte luzeetako lana, bizitza osokoa noski.

Jaio-berria! Bai indarge ta makal! Berari eskuak ezartzen ere, ozta-ozta ausartzen gera; ainbesterañoko beldurra sartzen digu loretu zaigun bizi pitiñak. Luzaroan itxaron degun izakia emen degu orain; bai, lendik ere, ondo antolatua degu umetxo orren etorrera. Orain zaitu egin bear degu, janaritu, jantziak aldatu, bere zemai ta bear-izana txikienak ere aintzat artu. Bai, arretaz, adi-adi jagon ta zaitu. Nolako joerak, nolako griñak dakarzkin jaio-berriak?

Igarri gabe azi egin da atzoko izakia. Lau urte ditu. Arrebatxo bat ere alboan dabilkio. Biok naiko zeregin ematen diote amari. Edoskaillu edo biberioiak, garbitu bear diran soiñekotxoak, gertatu bear diran janariak, etxeko zokondoak txukun ipiñi bearra: guzti onek denbora luze xamarra eskatzen. Baita naikoa aldi jaten dio negarrak ixillazteak, jolas-jokuak nola dioazten ikusteak, etengabeko galderari erantzun-bearrak, ba-koitzaren aurrean zerbaiten beintzat egon-bearrak..., baita senarrarekin ere. Emakume bat, maratz saiaturia izanik ere, beti ibilli oi buruauste ta ezusteko gauzaz inguraturik. Ez, ezin beti guztia osorik egiña izan: au ontzat eman bear da. Egunak ez ditu 24 ordu baizik.

Zazpi urte t'erdian, lau semealaba. «Au ezta txantxetakoa», dio andre ausart batek. Senarrak irabazten didana ezta naikoa etxe-

ko bear-izan guztietarako. Daukagun bizitz-oiñ au ere estu ta txikiegi gelditu zaigu, ta nai ta naiz beste bizi-toki nasaiago bat bilatu bearko degu.

Auek dira neretzat kezkarik larrienak, begiko fits, axola ta griña. Bai: bizitzan ez digu diruak guztia egiten. Baiña, bear-bearreko degu bizi-bidean aurrera joateko, familia aurrera eraman al izan dezagun.

Gure bost seme-alabak txikiak dira oraindik. Bi doaz eskolara. Nagusia ondo dabil ikasgaietan, baiña bigarrenari aldatz-gora egiten zaio ikastea, ta kezkatu gauzka onek. Zer gartatuko ote iru txikiagoekin?

Guk zorionez ikasteko erea izan genduan, eta geure semeak ere jakasi dezaten gura genuke; ar deztela, bai, jakituria, guztiko irakaskintza. Beren doaletan ipiñi bear degu geure ustea: agirian dago au. Baiña geure esku-arte ta diruetan ere bai. Ba ote degu dirurik geure seme-alabai bizi-bidean jarraitzen laguntzeko aia? Eziña da geure buruari galdera au ez egitea, jaiotza berrietan pantsa aurretik noski.

Aziera (edukazioa), egikizun leiagarria degu. Igarri ta estalgetu ta asmatu, eztiro ta ariz-ariz, aurtxo bakoitzaren barruan dauden gai ta trebetasunak. Bakoitzari, emeki, gero ta geiago azi ta aunditzen, adiñeko egiten lagundu: orixe degu aziera. Lanbide bat da, zailla ez gutxitan. Egun batzuk ba-dira gauzak nola atondu ez daki-gula gabiltzanak. Eramankizun itzala bear da orduan; norbere buruaren jabe izan;

samurtasuna bear da onen estuasunak paretzeko, aren istillu ta eragozpenak ulertzeko, beste ari galazi-ezindako larri-ordu bat onez eraman eta bera goitzen laguntzeko.

Senar-emazteak beren maitasun-iturrirajo bear dute, ta sakramentuaren grazi ta mesede guztietara, beren arazo gaitza aurrera ateratzekotan. Batak bestearen laguntasuna bear dute, egiazki, beren babespean jarri duten ontzia onik eraman dezaten. Azierak luzazten du ernaldura. Ta au, ezin dezakegu ukatu, senar-emazteen egitekoaren barruan osorik sartzen dana da.

Ez gaude bakarrik. Gotzon, Garbiñe, Mikel, irurok bateatuak dira. Poztasun ikaragarria izan zan guretzat jaio ziran egunean bertan Jaungoikoari berak eskeintzea. Ta bein bateoa artu zuten ezkerotzik, aur baiño geiago dira: Jainkoaren seme-alaba.

Gure semeak ba-dakite zeruan Aita bat daukatena. Txiki-txikitatik, otoitz eta eskari egiten erakutsi diegu. Berri On edo eban-gelioko orrialderik bikaiñenak ere bada-kizkite. Poliki-poliki, kristau bizitza zer dan eta zer esan nai duen asmatu ta igarriaz dijoazte.

Egun batzuetan, guk ala uste, semeak berak dira Jainkoa nor dan eta nola itz egin bear diogun, guri adierazten digutenak. Orduan konturatzen gera... Zertan? Bakoitzaren biotz-barne izkutuan, Jainkoak berak dagiala egiazko lana. Ura gabe ezin deza-kegu ezertxo ere. Gu ez gaude emen bere zerbitzari bezela baiño, ta makiña bat bidar zerbitzari baldar besterik ez gera.

Ala ere, Jaungoikoak gu bear gaitu nola-bait. Iñoiz ere Artaz gure seme-alabai itzik atera ez ba'genie, ea, nola Jakingo zuten Jainkoa ba-dala? Aien biotz-soloan nola sor-

tuko zan siñismen-azia? Eta gurengan ikas-bide bat aurkitzen ezpa-dute, nun ikasiko dute kristauak nola bizi bear duten?

LARRA'KO AMARI

Agur Ama laztan! Agur Karmel'go argi, Larra'ko ¡zar!
Agur, biotz-biotzeko Ama kutun, Amatxu maitagarri!
Gaur Zure koroatze egunik guren ta pozgarrienean,
udagioko egurats oskarbi, ezetasun goigarritz,
Zornotza'ko errriaren babes, itzalperik ederrenean,
batzuk soñez, besteak gogoz, danok, Zuganako egarritz,
ementxe, aurrez-aurre Zure billa, Zure zai, gazte ta zar.
O, Ama! Ementxe gaukazuz bai, ementxe Zure oñetan,
ementxe Zuri begira, Zuri deiez otoi ta arrenka,
erriko agintari, gotzai, aldun... seme-alaba, danok,
ementxe iñoiziko alkarrizketa barrentsu, mamitsuenez;
ementxe itxasaldekoen kresaltasun onura biziz,
ementxe menditarren garobide ta begipe ederrez,
zelairik zelairako zantzo ta irrintzi biozgarrietan;
ementxe kaleko ta baserriko, itxaso ta legorrez,
ementxe bai, Ama, bitartelkotzat, bearrezko zaitugunok,
gizaldi barri onen etorri iorankor ta sustartsuenez,
ementxe gaukazuz Zure egun eder onen aintzagarri,
ementxe gorputz bat egiñik eskeintzarik aundienean,
alderdi bietako Euzkalerrria Zuganatzéko pozez!

Bai, Ama, Zugana gatoz Zure billa, Larra'ko argitegi,
Zure seme zintzoen gordeleku eztiaren magalera,
Zugana bai, Ama maite, Ama errukior, Ama laztan;
Zugana Zure betikotasunezko bularpe gozora,
Zugana Amari'k kutunen, Amarik eder, agurgarrien,
Zugana maitezko besape, launartzerik soingarrienez,
Zugana, Ama, Zure semeon altxor, Zure altzo garbira!

Ta Izadiaren gorakundezko etorraldi ikusgarritz,
Bizkai erdiko zelaigune, biotz-bildegia eder ontan,
gure lur siñimentsu, baratza maite ta bedein'katuan,
gure lur langille, lur zoragarri, kementsu ta sendoan;
Zugana gatoz bai, Ama, Zugana, itxaropen bizienez,
Zugana, Oiz, Bizkargi, Sollube, Gorbea... mendirik men
begiak ikuste ioranez betea'k, gainik-gain, ortzi zear...
gure zelai, ibai, gure arru, gure muño ta ibarrez,
ainbeste mendi-txorta atsegingarrizko gaillur-artez,
arnas-barritze iraunkorretan, gizaldirik gizaldira,
Zure Izen Santuz beteak diran baserririk baserri,
egal batetik bestera... gure Ernio, Aizkorri, Aralar,
Añamendi alderdi goenetaraiño ta, erririk erri,
Zure oroipenezko deitura biziaren gogozko bidez,
ta batez ere Kantuari apartsuaren egal, itxasertzez,
mariñel biotzezko gizon bulartsu ta andra maratzetan,
kresal-sundazko euzkal-bazter zindo, eskugarrienez,
Zugana, Zure bitartez beti-beti bai, izatekotan...

O Karmel'go Ama! Ama kutun, Ama ezti, Ama maite!
Zugana gatoz bai, Zugana, gogoz, Zu besarkatzera:
Zugana osasun bizi eske, Zugana bai bizi billa;
Zugana gure eragozpen, miñaldi ta neke-oñazetan,
Zugana gure ibillaldi, zauri, elbarritasunetan;
Zugana gure arrisku, gure zigorraldi, ekaitzetan;
Zugana bai, Ama, Zugana erruki ta laguntza eske,

Zugana bai, Aldi negargarri, illunbide estuetan,
arantza oker ta gaiztoen batek zulatzen gaitunean...

O, Ama kutun, Ama laztan, Ama agurgarri, Ama bakan!
Gaur Zure aintzamenezko egun, Zure irudi jkoroatze,
Larra'ko zerupe itzaltsu, alkar untzaguntza emaitsuenean
Zure zorioneko zerutar iokabide goigarri ontan,
Eskuak laztantsu, zabal-zabal, Biotza askoz zabalago,
Zu, ain dizdiratsu, ain eder, ain maitagarri ikustean,
Zu, Ama, gugaz izanik ain etxeko ta, ain gure-gure!...
Ama! Gure biotzai alako ur-ema, ur bizi bat dario
ta, itxaropen baikorrez bizia sendatu, betikotuz,
bildur, txepelkeri ta, amets ustelak gugandik uxatuz...

O, Ama, Larra'ko izar, Ama berezi, Ama kutun ori!
Zu, egiaren, onaren, garbiaren eredu ain aintzagarri,
Zu, gure bitartekorik ta laguntzaille aukeratuen,
Zu, gure bizialdiko ibillien euspide ta oñarri.
Ementxe gaukazuz, Ama, Zuri deiez ta Zuri begira,
ementxe izan-miñezko egarriz Zuri otoi, agurka,
ementxe etxe santu, lur ontako Zure seme gotorren
gogo-zuzentzailleen jrakasbidez, geroago ta Zureago,
ementxe gaukazuz ta Zaukaguz, Ama ta Erregin Bakar,
ementxe Karmel'go oñarri sendo, gure Larra'ko izar!

Gaur itxasoz, legorrez ta alderdi batetik besteraño,
Euzkalerri osoa daukazu Zuri otoi, Zuri besarka,
ementxe, Ama!, bizi eske, bizi billa, Zuri txaloka,
Zure amatasun magaltsu, maitezko Argiaren Argira!!

Muniategi't

EGIN DEZAGUN GIZONA

Eta Jainkoak esan zun beste bein: «Egin dezagun gizona geure antz eta irudiko, itxasoko arraiei, eguratseko egaztiei, abereei, lur osoari, ta lurrean narrasten diranei buru izan dakien».

Ta Jainkoak gizona bere irudiko egin zun,
bere antz irudiko sortu zun.
Ar eta eme irazan zitun.

Eta Jainkoak onetsi zitun, eta esan zien:
«Kopurutu ta ugaltu zaitezte;
lurra bete ta menderatu ezazute.

Itxasoko arrai guztien gaiñ,
eta zeruko egazti guztien gaiñ
eta lurrean igitzen diran bizidun
guztien gaiñ nagusi izan zaitezte».

Eta Jainkoak esan zien: «Begira: lur osoan azia dakarten belar guztiak, eta azi ta arnaria dakazten gugatz guztiak damazkizuet, janaritzat ditzazuten. Eta lurreko iize guztiei, zeruko egazti guztiei ta lurrean narrasten diran bizidun guztiei lurreko soropil guztia damalet janaritzat». Ta alan izan zan. Eta Jainkoak beralk egiñiko guztiak ikusi zitun; ta on-onak ziran.

Ez degu seme-alabarik

Seme-alaba gabeko etxeak ba-dira. Guk uste baiño geiago. Batzuk urte luzeetan egon dira zai; ta gero, amar, amasei urte igaro ondorean, mirariz bezela eldu da bat, edo geiago. Baita ba-dira beste senar-emazte batzuk sekula izango ez dituztenak. Auek ere guk uste baiño geiago dira.

Supazter auek ez ditugu sarri aipatzen. Olako senar-emazteak, orraitio, atsekabe sorra izan oi dute. Maitasunak bere arnari ta frutua emango duela-ta bizi arren, etzaiote irixten momentu ori. Zer itxaro dezakete sendakintzatik? Zer ote da, beren gurutze latz-aundiaren zentzuna? Bakartadean emanak bizi bearko ote aldioro? Edo-ta, beste zerbaiteko deituak ote dira, bear bada?

«Amalau urte dira ezkondu giñala. Amalau urte, ta urte luzeotan alperrik egon gera seme baten zai. Amaika buru-ukapen izan

degu epe onetan! Eramankizunean murgil bizi bear. Iñoren poza gogora ekartzea, berriz, norberaren bakartadea aldioro, gordin-ki, gogoraztea degu. Gure miña ezagutzen dutenen errukia ta gu zerbait poztu nairik dabiltzanena, ezta zer askorik, ez orixe. Gutxiago oraindik kristau batzuen aldetiko ezetsia ere, gu alde-alde jo ta antz-ematen ibilliak gerala uste izanik, pekataritzat gaiztesten gaituenena noski. Guzti ori samingarri, neketsu izan zaigu; elorri arantz aundikoa, aurki.

AURRIK EZA, GURUTZE

Gurutz astun mingotza, izan ere, nekez onartzen dana. Bidea ezta aurkitzen egun

batetik bestera, aitaren egin orduko. Ta sarri denbora luzea bear da gaitzakin onezkoak egiteko. Orrela gerta zitzaien Abraan'i ta Sara'ri; orrela baita Zskari'ri ta Elisa-bet'i ere. Ezin zuten ulertu nola ta zergatik zeuden aur gabe

Semealabarik ez duten senar-emazteak, gaur ere, misteri ta ezkutapen ber-beraren aurrean aurkitzen zaizkigu. Ez dakigu zergatik. Jaingoikoak maite ditula jakin dezakete beiñik-bein, eta mundu ontan ba-dutela egiteko berezi bat, arlo bereziberezian izentatua izan ere.

Ain zuzen, seme-alabarik gabeko senar-emazteak asti ta denbora geiago dute sufritzen daudenai naiz eusgarria bear dutena! laguntza eskeintzeko. Beren aragi-elkortasuna Jainkoak lagata ba-da ere, beste arlo baterako nai izan ditulako izan da ziur askorik. Orrela, adibidez, mixiño-lurretara dijoazten senar-emazteak; baita orrelaxe Aprika'ko beltzen artean, ango mixiolaria! arnasa emanez lan dagiten osagille ezkonduak

GEURE SEME-ALABAK DIRA

Sukaldea toki bero, txeratsu ta abegi onekoa dezu. Berotu oi duen suaren antzera, edozein sukalde biotz-txingar pitin baten berotasuna ekarri bear die bakar ta arlot bizi diranai.

Seme-alabarik gabeko sukaldeak ondo lagundu dagio anaiaren naiz arrebearen sukaldean, auen seme-alabak beren babespean arturik. Beste bat gaixoak ikustera joango zaizu sarritan, edo-ta aurtxoai Kristau-lkasbidea erakusten ariko da. Denak nai izango dituzte, beren mai inguruan, egundo ere deituak izan ez diranak. Askok gura izango dute umezurtzai, semetzat arturik, familia bateko pozaren goxotasuna eman. Gerrateak, zoritzarrak eta ondamendiak aunitz aur utzi oi dituzte ez eukian, kale gorrian, bakar eta zurtz. Auen supazter bat eskeintzea, biotz zabalaren ezaugarri dezu, Sukalde bakoitzak bere deia billatu bear du.

Ona senar-emazte biotz aundiko bi nola mintzatzen diran. «Ezkondu ta bi urte ondoran, nere emazteak ebaketa gogor bat izan zuen, eta onek, betirako, ama izateko itxaropen barik laga zuen. Sastada latza guretzat. Eta, lenengotan, uste izan nuen nere andrea artu zuen zauskadatik etzala indarberritu ta osatuko.

Gero, pixkaka, kirio-denduneratu zan berri ere, ta lasterxe asi giñan semetzat mutitxo bat artu bear gendula pentsatzen. Aurretik, ezta zertan aitatu, kontseju eske ibilli giñan. Batzuk baietz esaten ziguten, ezetz beste batzuk, etzitzaigula komeni. Arriskurik ba-zan, egia, ta guk ba-genduan onen berri. Baiña, senar-emazteak ez al dira arrisku-leizan sartzen, gisa berean, norbere cdoletiko seme bat mundura ekartzea erabakitzen danean ere? Nola jakin lendanez

zer izango dan, zer egingo duen? Azkenik, semetzakora jo genduen. Eta ez gera iñoiz ere damutu.

Gaiñera, zorion aundiz, ez degu bat bakarririk semetzat artu, iru mutiltxu baizik. Geure sukaldean dauzkagu irurak. Eta zorion aundiz diot, semetzat artzeko moduan aur gutxi egon oi dalako. Guk luzaroan espero arren, zorion orrek lagundu ta iruraino aurkitu genitun. Eta or gure sendia ugariturik.

Gure iru umeak ba-dakite berak ama esaten dioten orregandik jaioak ez dirala.

Orain arte ez dute ezer sufridu dutenen ezaugarriarik eman. Laster iragarri bearko diegula-ta kezkaz gaude; nola dan gauzea gure iritzian bada azierak egia izan bear du oiñarri.

Egia aitortzeko, ba-ditugu ortan sosterak, eragozpenak. Guk ez dakigu seme auen aurretiko ezer. Gaiñera, etzaigu errez gazte auek beren kautan daramazkiten gauzak asmatu ta igartea. Nolako lana, bai, oiek igarri ta konturatzen! Pixkaka egin oi deguna da. Era ortan laguntzen diegu geure semeai azi, koskondu ta biribiltzen.

BURU TA BIOTZ

Zure oiñaren zuzendari
beioa beti zure burua;
bidean okertu etzaitezana,
oldoztu ondo nora zoazana.
Eta erabilli biotza
esku gaiñean dardar:
bertatik atarako dozuz
zeure eguneroko egiñak.

Unamuno

**JAINKOA AUNDI,
GIZONA AUNDIKI**

O Jaun, gure Jaun!
Zure jena bai arrigarri
Lurbira osoan!

Kantatzen dizut, zure aunditasuna
Goratzen baita zeruen gaiñetik.

Aur mutu ta bularrekoen aotik,
Gora-deia atera dezu etsaiak lotsatzeko,
Izterbegi ta arerioak ondatzeko.

Zure zerua ikustean,
Zure beatzak egiña,
Zuk irazan zenitun
Illargia ta izarrak,

Zer dezu gizona, Zu artaz arduratzeko?
Edo-ta gizasemea, Zu artaz oroi zaitezen?

Jainko bat baiño ozta txikiago egin dezu,
Ospe ta deduzko buruntza eio diozu;
Zure esku-lan guztien gaiñ agintza emanaz,
Guztiak bere oinpean jarri dituzu:

Ardi ta bei-idi guztiak,
Baita lurreko pizti guztiak ere,
ta ur-zidorrez dabillen guztia.

O Jaun, gure Jaun!
Zure izena bai arrigarri
Lurbira osoan!

Txikiegia ote degu lurra?

GIZADIA AUNDITZEN

Iru gizaldi dirala, 600 milloek gizon egotzan lur-azalean. Gaur iru milla milloek bagara, ta 2000'garren urtean, sei milla milloek lez izango gera. Lurbira etzan iñoiz be orain bezin azkar ugartu. Egutetik egutera 125.000 gizaseme geiago gera gure izarbelean: zeozer dan erri batekoak beste. Laster ez dizkiogu alkarri orpoak zapalduko? Lurra janaritu al izango ote du ainbeste jende? Gerokoan porrokaldi ikaragarriak uxatu ta alderatzeko, elitzateke zentzuzkoa jaiotzak berariz mugatzea?

Malthus, XIX'garren mendeko ekonomista, izan zan gai oni lau ertzetatik begiratu ta sakonik aizaturik, jaiotzak mugatzea mundu osoaren begi aurrean jarri zuena. Ark zioan: gizadiak bizi izateko dauzkan

eskuarte ta baliakizunak ezingo dira egutdo ere lurbirako gizasemeak ugaltzen dijoazten neurrian azi ta ugartu. Lurreko biztanleak oraingo bizkortasunez geituz ba'dijoaz, gizadia naitaez goseak jota ilko zaigu. Gaur ere, goseak triskantza ikaragarriak egiten ditu lurralde askotan. Egia ote? Malthus'ek esana? Jaungoikoak izan zuen lurra, estuegia ote da gizonarentzat?

OINDIÑO BA-DA LEKURIK LURREAN

Gure izarbelean lur-sail ikaragarriak dagoz oraindik protxua atera gabe: Amerika'-ko Egoaldean, Afrika erdialdean eta Asia'n batez ere. Eskualde zabal edatuak, **atzo arte**

eremu ta lekaro ziranak, bizi izateko gai biurtu ditu gizonak, edo ortarako bidean daude beintzat, Ikusi Asia erdia, Australi, Ipar-Afrika ta Sahara. Teknikaren aurrera-pideari eskerrak, lur basakar eta elkorrak aurrera doaz urrats-arin. Eztago dana egia, egia esan: menderatu gabe gelditzen dira oraindik lur-bazter neurtu-eziñak.

Ala ere, gaurko teknikak ez dio gizonari laguntzen lur-une aundiagoak eskuratu ta menderatzen bakarrik. Baita, lur-lana ugariturik, menderatutako sailen jabetza geitzen ere laguntzen dio. Kimi-ongarriak, azien aukeratzeak, urestatzeko era berriak, zomorroak iltzeko bideak, ale ta labore geienak ektareako irutu naiz lautu eragiten dizkiote, naikoa errez. Laterri-Alkartuetan bezela oso aurreraturik dauden eskualdeetan, guztiz ondo erabilli ta landuak izan dira ango lur-sail aundiak, eta toki batzuetan gutxitu egin bear izan dituzte ale ta laborerako zeuden lur-azal batzuk. Atzo naitaez lantzeko bear izan ziran lurak salgai gelditu dira beste zerbaiteko: uriak jasotzeko, loretegi ta parkeak tajutzeko, naiz oian eta baso zabalak marratzeko. Teknikak gizonari eskeiñi oi dizkio bizi izateko zabaldegi berriak. Gaur Laterri Alkartuetan eta beste errialde batzuetan gertatzen dana biar aurrera diran errialde guztiekin gertaluko da. Ta egiazki txiro ta beartsu diranak ere aurreratzeke erea izango dute, errialde aberatsen laguntza baldin ba'dute bederen.

LURRA EZTAGO SORKI TA ABERASTASUN GABE

Gizadiak bizi izateko gaur ere esku artean dauzkan guztizko otzur ta baliakizunak errez goitzen dituzte gain-gaiñeko premia ta eskastasunak. Izan ere, lurreko jendetzeta urtean % 1,6 ugaritzen dan bitartean, jateko goraberak % 4'an geitzen dira.

Amar bider geiago eman dezake beintzat Egunero dakusguna da: lur-langintza oso aurreratua aurkitzen dan errialdeetan, bertan bizi-premia ta bear-izanen gaiñetik arin ta errez jartzen da janari-ekarpen edo obaria.

Ortan eskolatuak diranak diotenez, amarrekin askotu dezakegu munduko lur-langintzak dakarrena, ta lurbirako azal langarri guztiak Olanda'n bezin ondo landuak ba'lirake, 28 milla milloi gizaseme janaritu ditzakegu errez aski, ta 90 millaraiño ere bai, janaritze ori ale ta laboretan izan ezkeroz.

Ez gera, ez, geure ondasun-sorburuz ondo baliatzen. Lurrak eskeintzen diz!kigun aberastasan guztiak, oso ugariak baitira, ez ditugu erabiltzen. Gure lurraren azal langarritik zortziren doi-doi daukagu gaur balioa emanda, ta Etiopia'n bakarrik daude 72 milloi eiktarea lur, oso emakorrak, uztiatu edo explotatu gabe. Lurbiraren tautik iru zati estaltzen dituzten itxaso ta ur-saillak ontasun eta aberaski ikaragarriak dituzte: arra-

jak, bitamina ta metal gatzetan oso aberats diran planktonezko ur-joera ta tirairi aundiak. Egungo egunean, oso gutxi ateratzen degu oietatik: munduan Jaten dan mililetik bat ozta-ozta. Itxas-uretako aberastasan izugarri au oraindik ikutu gabe daukagula, esan dezakegu.

Gaur, atzo arte ezagutzen ez genitun janari-bide berriak aztiatzen, explotatzen ari gera. Suizarrak, ipar-amerikarrak, japon-darrak, eta abar, errezto gertu ta indar asko duten jateko-mota sintetiku edo erabatekoak ekarri ta antolatzen asi dira. Oietatik berriena «klorella» degu; gaurko egunean onetaz saioi asko dagizkíte Japon'en, ta ziurrik asko naikoa aldatuko du berak janari-arazoa. Itxas-oroldi edo alga eze berri bat dezu; legamiñeziko kizkiñez (zelulaz) janariturik, arrotzak baiño sei bider proteina geiago dauzka, xekor-gibelak baiño ogetamar bider bitamina A geiago, ta espinakak baiño lau bider bitamina C geiago. Japondar jakintsuak uste dutenez, 64 kilometru laukituan ereindako klorellak laro-gei millo pertsona janaritutzeko beste proteina emango lituzke. Jateko berri guztiok, biarko gizonentzako, itxarokizun eder dituzu.

Irikerik dauzkagu arrobi izugarri bat. Mundu osoan, millaka ta millaka jakitun eta tekniku dabilta janari lotuak, lur-zorruak garbitu, osasungarritu ta urestatu nairik; zertako ote? Landare ta abereak ugaritu ta onduteko; giza-semeentzat protxu-

garri liraken janari-bide berriak asmatzeko. Errusitarrek eta ipar-amerikarrak iritxi dute len eremu ziran Ipar-buruko eskualdeetan barazki ta aterik geianak an-bertakotzea.

Janari-iturri berriak, jori ta aberatsak iri-ki dira Errusia'n, Txina'n, Amerika'n, Aprika'n. Gure lurak, beraz, ba-du oraindik nun jorratu, nun aitzurtu, nun zulatu. Arro-bi izugarria! Ikertu ta aztertu gabe geiena. Gaur iru milla milloi dauzkala? Ta zer? Bada, ez ukatu, jendetza askotaz aundiagoa janaritu ta mantendutzeko aña ere. Ori esaten digute munduko ekonomí-arazoetan jakintsu diran askok.

LURRA EZ DAGO JENDEZ BETEEG)

Europa'k gaur 85 biztanle dauzka kilometro laukiko; 100 giztanle, Asia Erdiak eta Egoak. Amerika Latina'k berriz, 7 biztanle, ta Ipar-Amerika'k eta Kanada'k, 3. Lurralde auetan gorabera asko dauzkagu: Puerto Rico'n, esate batera'ko, 250 biztanle dauzka kilometru laukik, ta 2 baiño gutxiago aurkitzen dira Guyanas'etan.

Munduko jendetza urtean 1000'ko 16 biztanle bezela ugaritzen dan bitartean, Amerika Latineko erraildeetan geitze au 25 biztanleko baiño ezta. Amerika Latina'k! 63

milloie biztanle zeuzkan 1900'garren urtean. 1953'garrenean Amerika Latineko biztanleak 163 milloie ziran, eta 2.000 garren urtera'ko, egindako kalkuluak egozten dute-nez, 592 milloie izango ditu. Neurrietara jo ezker onek esan nai du, Amerika Latineko jendetzak 1900'garren urtean euneko 4,10 ba'zan munduko jendetzari begira, 2000'garren urtean euneko 9,40 izango dala.

1950'garren urtean, munduko errialde «atzeratuak» deitzen artean munduko jendetzari buruz euneko 65,50 egiten zuten. Lurralde auek, 2000'garrenean, euneko 76,30 egingo dute.

Ainbat indar eta izan-gaitasun ote ditu Amerika'k? Amerika Latinean landutako lur-azala % 5 baiño ez omen da, guztiari begiratu ezker o. Lur-bazter orrek iritxi dezake, diotenez, 4.000 milloie janaritzea. Au da, gaur ditun biztanleak baiño ogei bider geiago.

Pakean alkatuago egiñiko mundu bat bear degu. «Zaingoa» deitu ortan, au da, gerra bat sortuko liguken ezusteko atake baten beldurrez ainbat iskillu ta gerratres na egiten munduan urtero gastatzen diranak, 80.000 milloie dolarretik gora omen ditugu. Diru au naikoa litzakigu lurralde osoak euren «atzerat egote» lotsagarriok jasotzeko. Erriak eskua eman bear diote alkarri.

Ipar-Amerika'n landu nai dan 50 ektarea bakoitzeko traktore bat daukaten birtartean, Eguzki-alde Urrutian bat baiño ez-

tago 8.500 ektareako. Amerika Latinean, ordea, bat 470 ektareako.

Atzeratuta dauden errialdeen istillua ez dago biztanle geiagiz beterik daudelako, ezjakin asko daudelako baiño, lan nola egin ez dakitelako baizik. Industrirako makiña aundiak eta agrikulturarako makiña guztiak ere, laster ondatzen dira, lan-eragiteko esku treberik ez ba'dute.

Lurrari balora emateko milloika gizon geiago bear lirake orain, baiña eskolatuak eta gure izarbel onen ekonomi-aurrerapenen esku artzeko gai lirakenak. Au ere ekonomisaillean zur ta jakintsu diranak diote. Jaiotz-neurketa bat arako naiz onako garaian, arako naiz onako errialdetan izan di-teke bearrezkoa. Mundu osoari begiratuaz, ezin dezakegu ontzat artu. Lurra ez dago oraindik lar biztanletua.

ALERE, MILLOIKA GIZON

GOSEAK DAUZKA

Geroak ez ginduzke izutu bear, esaten digute ekonomistak, gizadiak bizi izateko dauzkan ontasun-iturriak ditun premia ta bear-izanak errez goitzeko bestekoak dirata. Alere, milloiak giza-seme dira gaur munduan gaizki bizi diranak, gosearen atzapar artean gorriak ikusten dituztenak.

Zergatik? Janari-iturriak oso ezberdin bananduta daudelako: 20 edo 30 naziok bade lurrealde osoak zerekin elikatu, beste batzuk gosez ta gaizki mantenduta daudelarik. Zer egin? Gosea deritzaion zartaillu onen aurrean, zer egin?

Jaiotzak, asko diran errialdeetan, auek mugatu egin bear al ditugu? Gosetiei galazi bizitza ematea? Errialde aberats batzuetako biologo ta ekonomista batzuk orrela pentsatu dute, baita lurrealde atzeratueta sorpen-kontrakoa eta agordura bera ere bai, irakatsi ta zabaldu dute.

Eliza, ordea, beti jaiki izan da «askapen» onen aurka. Lenengo, gaiztakeri aundia dalako gosetien kontra, gizadiaren kontra. Bigarren, askapen au ona ez talako.

Gose diran erriei lagundu bear zaie. On do orniduta dauden errialde aberatsak dira, gutxi asko, goseak ilda aurkitzen diranen errudun. Lagundu egin bear diete, il ez dit ezen bear dutena egiazki emanaz, baita bear dutena berenez antolatu ta ekarri de zaten, gai ta trebe biurtzeko, alik eta biz korren laguntza eman ere.

Laterri arteko alkargoan datza gose-a uziaren askapena. Lurrak ba-du oraindik zerekin janaritu eundaka milloi gizaseme geiago. Errialde aberatsak errialde txiro ta beartsuei bene-benetan laguntzeko erabakia artzen baldin ba'dute, gosea goitua izan di teke.

GIZONEN LANAK MUNDUA ERABERRITZEN

Jaungoikoak ez dio gizonari semeak sor tzean bere egiteko sortzailleari jarraitzeko egindua bakarrik eman: baita eman dizkio ortarako bideak ere, bere seme-alaben bi zitza ta janaritzea lasai sendotzeko. «Uga ritu zaitezte», dio; ta bertatik gaiñerutzen du: «Bete zazute lurra, ta azpiratu».

Jainkoak sortu duen gizona atsedentoki edo Paradisuan dago. Paradisua, berriz, ba ratz bat degu, ta gizona baratz ori «landu ta zaitzeko» dago.

Landarak eta abereak eta lurbira osoa Jainkoak egiñak dira; baiña gizonak man datu, egiteko bat artzen du Jaunaganik: lan egin bear du. Gizonaren egintza aspergai tzak iuzatu egin oi du nolarebait Jainkoa ren egimen sortzaillea. Jainko-seme danez, gizonak irudimena du asmatzeko, adimena gauzak eratzeko, eskuak bear egiteko. Be rari dagokio lurretik jalki-eraztea beretzat, bere seme - alabentzat eta gizaseme bere anaientzat bear duen jatekoa.

Paradisuan asten da dana, antxe Adan' ek eta Eba'k sortzeko ta lan egiteko agin dua artu duten tokian. Munduan edesti ta istoririk baldin ba'da, errazoi auxegatik da: gizasemeak sortazi ta lan egin dutelako, alegia. Gizasemeak ugarituz dijoazten neu rrian, janariei buruzko lan sortzaillea ere indartu ta aizatu bear da, Jainkoaren deiari

erantzun al izateko; Berak ipiñi du, ba, mundua gizonaren -ardurapean, onek landu dezan ta guztien ongi-izatea ta azkuntza gero ta aurrerago eraman ditzan.

ELIZAK ZER DIO JAIOTZAK ARAUTZEAZ?

Eliza kezkatu dago, dudarik gabe, jaiotzai buruzko auzi, prolema ta buruaustea-kin; sarritan, bada, asko ta izugarriak dira, batez ere ezkontza batean seme-alabak mai-zegei datoztela-ta, ikusi oi dituztenak. Baiña, zein ote da zeatz-meatz jaiotz-mugatze ta neurketari buruz Elizeak duen ikuspegi edo begira-tokia?

Ona emen, gai onetaz Elizeak irakasten duenaren laburpen bat.

OIÑARRIAK DIRA:

Ezkonduen maitasuna ezta griña naiz irrits norberekoi bat. Beste zerbait degu, ori baiño gurenagoa.

Aurren mundura etorteari maiñaz ta antzez sosterak jartzea, dala sorpenaren kon-

trako bidez, dala obari antzukurren bitartez, elburu bezela duten azpijoko ta konomako guztiak ezetsi ta txartzat emanak jzan bear dute...

Arik eta bizkorren neurriak artu bear dira gizartean etxe ta bizitoki krisisa erabaki ta guztion bizitz-maillan oberaldi bat iritxi dezagun, eta familiak bear bezela aurrera joan ditezten...

Jakintzak gero ta geiagoka zeaztasun berriez aberastutzen ditun era ta bideai jarraiturik egiñiko jaiotz-arautze batek eroapen aundiz lorturiko norbere buruaren jabetza osoa eskatzen du, baita norbere barne-sen eta zentzunen menderatze osoa ere...

Barruti ontan, ezkonduak, sikolojizko ta fisiolojizko lau - unean lagungarri izango zaizkien ezaugera onurakor guztiak ondo barrendu ta ikasten saiatu bearra dute...

ELIZAK ZER IRAKASTEN DUEN

Elizarentzat, ezkontza, auxa da ezer baiño lenago: «biziaren zerbitzurako» eraikitze bat. Ezkontzen diran gizonak eta emakumeak Jaungoikoagandik artzen dute mandatu ta arlo bat: bizia besteri emanaz sortzean jarraitzekoa.

Elizea, baiña, ezta nai ta naiezko jaiotza zalea. Ez die senar-emazteai eskatzen euki

ditzatela alik eta seme-alabarik geien, oi bezela azi ta ezi ditzaketen aña baizik. Eli-zak, izan ere, beti korapillatu izan ditu sor-tea ta azitzea. Beretzat, bizia ematea ez da bakar-bakarrik «seme-alabak mundura egozte». Baita ba-da azi, ezi, fedea bere li-gan esnatu ta kristau biurtzea ere.

Elizeak ontzat artu oi du, ta ezagutu, «jaiotz-arautze» baten jatortasuna. Senar-emazteak, beren seme-alaben kopurua, be-netako errazoiak ortarako dituztenean, ba-kandu naiz mugatzeko duten eskubidea ez-tu Elizeak txarto ikusten. Errazoiok dira: ama-ren naiz jaiotzeko dan aurraren osasuna, bizibide edo bizitokirik eza naiz urritasuna, bear litzaken besteko aziera seme-alaba geiagori ezin emana, sukaldeko dendu ta oreka. Kasu ta aldi batzuetan, eskubide au eginkizun biurtu litekena degu. Elizeak bi-kote bakoitzaren bizkar uzten du berak ar-tzen duten erabakiaren erantzukizuna. Bai-ña auxe eskatzen die senar-emazteai: ondo ta arretaz begiratu ta kontsejua eskatu de-zatela, eta batez ere ez ditzatela seme-ala-bak mugatu berenkoikeriz, au da, olako xorta gabe, ondo bizi izatearren.

Elizeak ez du aintzat artzen edozein joka-bide, jaiotzak neurtzeko. Bizia deuseztu, al-perrik galdu naiz jaiotzea galaztea —aur-galtze, antzutze, indarrezko naiz kimi'kazko sorpen-kontrakoak— elburu bezela duten asmatutako egipide guztiai txarretsiz ezetza ematen die. Bide oiek, diosku, «biziaren kontrako gaiztakeriak» dira, Jainko legea-

kin ezin-alkartuak; gizasemearen duintasu-narekin eta giza-maitasunaren aunditasuna-rekin bildu ezin ditezkenak.

Elizeak ez ditu zillegi ta bidezkoztat ema-ten, jaiotzak arautzerakoan, berezko era ta metoduak baizik: uzte osoa, edo-ta aldika-koa. Uzte osozkoa da senar-emazteak, alka-rrekin bat etorriz, denbora luze edo labu-rrerako aragi-artueman guztiari uko egiten diotenean. Aldikakoa, berriz, senar-emaz-teak, egiazko errazoiak izanik, emakumea berez agor dan aldi-uneetan baizik aragi-artuemanik ez dutenean.

Elizeak jaiotz - arautzeen berezko meto-duak ontzat ematen baldin ba'ditu ere, iza-nari Jainkoak sortu ta jrazan zuenez lotsa erakusten diotelako degu. Baita, gainera, ezkondui, pixkaka pixkaka garbitasun-bir-tutean azi-azten duen izaikundearen nausi-tza eskatzen diotelako ere.

Aldikako uzte onen bitartez jaiotzak arautzea dala-ta, Pio XH'garrenak au esan zuen: «OsagiNeen senda-jakintzak, uste izan dezakegu, laketuriko bide ta metodu oni oiñarri aski segurua ematea jritxiko duela, ta azken orduko berri ta argibideak izan ere itxaropen ortan gogortzen gaituztela dirudi».

JAIOTZ-ARAUTZEARI BURUZKO BIDE BEREZKOAK

Ze diferentzi edo alde ote da jaiotz-arau-tzeari buruz berezko bideen artean eta

«birth control» dalakoa nai dutenen artean? Berezi ta zeaztu ditzagun emen gai oni dagozkion puntu batzuek. Zertan datzazki jaiotzak arautu ta negurtzeko metodo berezkoak? Osagille batek azalduko dizkigu labur-labur.

—Zer dute oiñarri jaiotzak arautzeko berezko bideak?

—Emakumea ezpaita ernalgarri illeko egun guztietan.

Jaiotzak arautzeko berezko metodoak —Ogino'rena, berozkoa— auxe dute elburu: emakumea, ille bitartean, noiztik noizera dan agor, antzu jakitea. Ta senar-emazteai ematen die oneik aragiz alkar batzeko erea batasun ori ernalgarri izateke.

—Berezko metodo aukerak, aldikako uzte edo bagetasuna eskatzen ote dute?

—Jakiña da. Onek esan nai du senar-emazteak erabakita daudela —bizitza guztian, eta ez kuntze-zelaian bakarrik— beren buruekiko nausitza bear bestékoa lortzera, ezkontza arloan beren naitara ta gura dute-nean askatasun osoz ernaldu dezaten. Ortarako bear dute borondate indar berezia beren kuntze (sexo) zirkiñak ezagutu ta be ra i agindu al izateko. Baita emakumearen ernarritako aldiaren goraberak ezagutzeko guraria ere, ernaldura eziña dan garaia xeetasuni'k aundienakin mugatu dezaketen. Oar-ikaspenak dioskunez, nausitza au iritxi ditikena da maite-bizitza barruan.

—Zer da Ogino metodologia?

—Metodua bera oltxo batzuk dira, ta ol-

txo aukerak, emakumearen ernal-aldi ezberdiñai, au da, illeko edo ama-legeen arteko aldi-uneai ezaririk, gutxi gorabera emakumearen agor-garaiak berezi ta epetzen dizkigute.

—Ogino'ren jokabide oni buruzko iritzimiritzi zorrotzak ba ote dute zuribiderik?

—Indartsu ta eragiña izateko, bi kondizio bear dira. Lenengoa, emakumearen illeko odol-aldiak arte ta iraupen berdiñekoak izan edo jakin dedilla beinik bein urrango illerokoen eguna. Bigarrena, ardura artu oltxoak zeatzzeatz bear bezela ezartzen. Au da, dudarik sortuko ba'litz, luzatu beti ere ugaldien-aldia. Au ez egitetik uts eta ondore txarrik naiko sortu oi da.

Beraz, metodo onek iraupen berdiñeko ernal-aldiak dituzten emakumeentzat balio du bakarrik. Ortaz, iraupena izatez naiz zeazkiro ezberdiña edo asma-eziña danean, ezta eragikor ta baliozkoa. Ba-dira illeko aldiak arautzeko sendabideak.

—Eta beroki-metodua?

—Onetan du oiñarria: emakumearen goiz-goizeko beroa, ogetik jaiki aurrekoa, ezta berdiña aldi osoan zear. Aldi-asikeran, «otz-giro» du. Ta gero, aldi-erdiruntz, azki-klakada unean, gorantza doa mailla batzuetan, egun bat edo geiagotan. Eta, gero, geldi iraun oi du «bero-giro» onek gaiñeroko aldi-bitarte osoan. Eta «bero-giro» oni dagokio agortasun ja osoaren aldikada bat.

Beroki-metodu au, Ogino'rena baiño askoz seguruagoa dezu.

Gaur jakin-arauz egiztatu dana, auxe da: emakumea, odol-aldi aurreko amaika egu-netan, aribidez agorra dala, ta ernal-aldia au da, illekoaren ondoren ba-dala beste agor-aldi bat, aldi-iraupenari ta pertsona bakoitzaren zer-nolakoei erantzunik aldatu oi dana.

PUNTUAK ZEATZ JARRIAZ

I.—Sorpen - kontrakoak. Asmatu-riko bi-deak dira —mekanikozkoak edo kimikaz-koak—, ernaldurari sostorrak jartzea elbu-rutzat dutenak. Jokabideok izatearen aur-kakoak dira, aragizko ar-emanak beren be-rez jomuga ta izan liteken ondoren gabe, au da, bizi-ema- gabe utzi-azten dituztelako.

Elizeak txartzat dauzka sorpenaren aur-kako jokabide guztiak: 1.º Jainkoak sortu zuen izadi-legeen kontra doaztelako. 2.º gn. Gizonaren eta emakumearen duintasunaren aurkakoak diralako. 3.º gn. Sakramentu bat dan ezkontzaren santutasunaz bat ezin di-ralako etorri. 4.º gn. Senar-emazteen maita-suna arriskuan jartzen dutelako.

II.—Antzu-bideak. Gizonagan naiz ema-kumeagan, kopura ta ernal-kizkiñak galdu ta zuzitza dute elburu. Elizeak gaitz-esten ditu era berean jokabide guztiok, giza-iza-tearen kontra doazte-ta. Senar-emazteak ez dira beren gorputzen jabe, beren bizien ja-be ere eztiran bezela. Beren barruan dara-maten bizi-iturria zuzitu ta ondatzeko esku-biderlk ez dute.

III.—Illor-bideak. Bizia berariz deuseztea dute elburu, ernaldia agertu naiz oraindrk litekena danean geldi-erazi ta etenik. Aurra botatzeko egin-molde guztiak txartzat dauzka Elizeak, bizia Jainkoaren emaitz dala-ko, ta Jainkoak au esan zuen: «Ez dezu ilko».

IV.—Jaiotzak arautzeko berezko bideak (Ogino'rena, bero-tresna). Auek ez doazte izadiaren kontra, berezko gertakari bat bai-tute oiñarri: emakumea ezta ¡Meko egun guztietan ernalgarri edo ugarikor. Beren errazoiak dituztela-ta, emakumea agorra dan egunetan baiño aragizko artuemanik euki nai ez duten senar-emazteak ez doazte, beraz, izadiaren kontra. Oizko kuntze-bizi-tza eukiteko izadiak eskeintzen dien al-izate bat darabilte, aldi berean beren ara-gizko batzea ez dala ugalkor izango jakiñik.

LARRAKO AMARI

LEMOAITZETAN **OTEA LORE,**
BIZKARGIN IÑAR-GAROA...
EZTI-LOREA GURA DUENA
LARRA-LARRERA **DIJOA...**

Bizkai-mendi-altzoan
Zornotzako uri,
zugan fede-arnasa
emon yaku gun;
antxe Larrako bordan,
(artalde iduri)
dakust milla ta milla
fraide kapa-txuri;
artzain Karmengo Ama
gau t'egun urduri.

Liliak txuri-gorri,
zejaiak Qrlegi
an-emen baserriak
euskal-bitxitegi,
ibaiak inguruan
zidarrezko egi...
orra gure Amaren
maitasun-jauregi.

Berak billatu ditu,
(ez da egondu zai)
ezitzeko euskaldun
mutikoak artzai;
eskutik daramazki,
zabaltzeko nunai,
gogo saminduentzat
amaika sendagai.
Ez da egondu zai...

Geroztik karmeldarra
dabil au beltzean,
ardi galduen billa
nekeko bidean.
Ikuska luzean,
nun arki bildotsa...?
Argi-mutil Larrako
Amaren biotza.

Or dabil atez-ate
beartsu, eskean,
odol-eskean,
odol-neketan ere
sarri gurutzean;
ta egur berean,
(betor eriotza]
minkide maitena du
Amaren biotza.

Kezkaren indarretan
jetxi da leizean,
ta amildua laztanduz
dalcar bizkarrean...

Etixeratutzean,
gaueko izotza
legortzera jun yako
Amaren biotza.

Zornotzako gañean
Larra-komentua
da zero-ondasunen
bitxi-gordailua;
aulak indartzen diran
osasun-lekua,
antxe alaitzen bait da
gizarte mindua.

Zeruko atari da,
sinismen-itzala,
euskera ezitzen dun
Amaren magala.
Ezin uka gazteak,
an ikasi ala,
zuzentasun-giroan
indartu gizona.

Gizadi aundinaiak
Marte du Jainkoa...;
elorri-arantzetan
lore gorrotoa...
Guda-burruak sutu
dunean auzoa,
ezti-baratz izan da
Larrako muñoa.

Ama, zuk negar eta
irripar goxuan,
biotza urtu dezu
gure kolkotxuan.
Maite zaitugunentzat
agindu zenduan,
zure atsak erneko
gaitula zeruan.

Geugan burutu dozu
aipagarriena,
semedunak dezaken
maite-lan goiena...
Aitorrez damaizugu
Erregiñ-omena,
gure opa samurrak
koroitu duena.

Urre gorrian gure
esker ona dua,
erri demokrataren
opari gartsua,
Bizkaiko sutegian
biotzak landua,
pakeak lotu ditzan
lurra ta zerua.

Ezin batuak dira
gaua ta eguna,
ezin gaztelera ta
Aitorren jarduna...

Arrotzak il ez dezan
gure nortasuna,
piztu ta zaindu, Ama,
erri euskalduna.

Zeruak mara-mara
grazia du ari,
zenbat esker ixihka
ta zenbat mirari...
Erriak agur...! agur.
diotsa kantari,
koroia ipiñiaz
Larrako Amari.

Txoriak, mendiz-mendi
zabal atsegiña...!!
Aize danak eragin
Karmel-ikurriña...!!
Amaren jaia da ta
poztu alegiña,
dantzatz arin-arin
txistu-danboliña...!!

LEMOAITZETAN OTEA LORE,
BIZKARGIN IÑAR-GAROA...
EZTI-LOREA GURA DUENA
LARRA-LARRERA DIJOA...

Loidi'tar Paben

AITA SANTU PAUL VI'GARRENAK
JAIOTZAK ARAUTZEA DALA-TA
EGIÑIKO IDAZKIA

*Anai agurgarri ditugun Aia-goi, Gotzai-buru,
Gotzai ta apostolutar Aulkiaz pake ta alkartasu-
na duten beste edozein arima Arduradun, eliz-
gizon ta mundu katoliku guztiko Kristo'ren ja-
rraitzaille ta gogo ona duten gizaseme guztiei.*

ANAI AGURGARRI TA SEMEALABA
MAITEOI: OSASUNA TA APOSTOLUTAR
BEDEINKAPENA

I

AUZIAREN ALDERDI BERRIAK ETA ELIZ-
MAIXUTZAREN ESKUBIDEA

BIZIA BESTERI EMATEA

1. Giza-bizia besteri eman bearra, au da, ezkonduak Jainko sortzailleari azke ta jakitun eskeintzen dioten lan astunak, beti izan ditu aientzat pozbide aundiak; emen-dik, ala ere, sortu izan dira aldizka gaitzak eta larrimiñak ez gutxi.

Egiteko au betetzeak aldi guztietan arrotu izan ditu ezkonduen kontzientzian buru-auste gordiñak; gaur are geiago, gizarteak bere aurrera-bidean alako aldaketak egiñik, auzi ta istillu berriak sortazi ditu, ta Elizea k, gauzok, gizasemeen bizi ta zorionari orren urbildik dagozkion ezkeror, ezin ditu iñolaz ere alde batera utzi.

AUZIA BERRIZ EZARRITA

2. Egin diran aldaketak, egi-egiaz, nabari ta era askotakoak izan dira. Ta begipean daukagu lenengo jaiotakoen kopuru azkar ugaritua, ta askok augatik erakutsi oi dute lurberako biztanleak, erantzuteko gertu dauzkan ondasun-mukulua baiño bizkorrago geituaz doalako bildurra, ta ortik gero ta geiago azi ta ugarituaz doazten aibat famili ta errirentzat larrimin aundia-
goen iturri ez ote diran izango. Orrezkero, gaiñera, erriko agintariak ere arrisku oni buruz neurri gogorrakoak artzeko tenta-bide izango lukete. Gaur gertatzen dana da, lan

eta bizitza kondizioak ez-ezik, gero ta geiago geituaz doazten bear-izanak eta naiz ekonomibarrutiak naiz gaztedia azi ta ezteak ditun eskabideak, sarri askotan zail egiten dute seme-alaba askori, egokiro beintzat, begiratzea.

Au ere ikusten degu: ez bakarrik emakumearen nortasuna ta onek gizasemeen artean duen doai ta egitekoa, ezkonduen maitasunari ezkontza barruan nolako balioa eman eta maitasun oni begira senar-emazteen egintzak nola etsi bear diran ere, pentsaera berriz artu bear dirala.

Azkenik, eta batez ere, gogotan izan bear da, gizonak, bai izadi'ko indarrak menderatuaz ta bai adimenaren ariora eratuaz, aurrerakuntza izugarria egin duela, indarmenderatze ori bere izate osora ere zabalitzen saiaturik; au da, bere gorputzera, bere gogo-kemenetara, gizarte bizitzarra, ta bizia besteri ematea neurriratzen duten legeetara.

3. Gauzen egokera ontatik galdera berriak sortzen dira. Naiz orain dauzkagun bizitza kondizioak gogoan arturik, naiz erkonduen artu-emanak beren alkar-aitze ta zintzotasunari buruz duten esangurari begiraturik, ez ote litzaken egoki gaur arteko moral-legeak bir-aztertzea, lege oiek batez ere buru-ukatze gabe, buru-ukatze oso aundi gabe batzuetan, ezin ditezkelako gorde jakifilik.

Geiago oraindik: «osoarena» esaten zaion oifarrria gai ontara ere ekarriaz, ezin ote ditoken onartu sortzez urriago baiña errazoi-

ari egokiago datorkion asmo bat, soifnez agortasuna dakarken egintza jaiotzen neurketa legezko ta arduratsu ezin ote ditoken itzuli, alegia. Au da, ezin ote ditoken ontzat eman sortu-bearren elburua ezkonduen egintza bakar bakoitzeri baiña beren bizitza osoari dagokiona geiago dala uste izatea. Baita galdezka daude, gaur gizonak iñoiz baiña geiago beren egitekoen barne-sena duten ezkerro, ez ote zaien dagoneko ordua eldu, bizia emateko arazoa, alako gorputzaldien arauz barik, beren errazoi ta naimenaren mende uzteko.

ELIZARI DAGOKION MAIXUTZA

4. Era ontako gaiak, jakifña, Jainkoagerpenez ?rgitu ta aberasturiko izate-legea oifarriritzat duen ezkontzaren moral-irakatsiari buruz, azterpen berri ta garaiago bat eskatzen zioten Eliz-maixutzari.

Ezta eliztar bat ere izango, berezko oitura-legea adieraztea Eliz-maixutzari dagokion dala ukatuko duenik. Ezin ukatua baita —gure aurretikoak sarri esan zutenez (1)—, Jesukristo'k, Pedro ta beste apostoluak bere jainkozko al-izatearen erdikide egin ta bere aginduak jende guztiei irakastera bialdu zitunean (2), moral-lege osoaren zaitzaille ta adierazle seguru ere egin zitula: au da, ez Ebanjeli-legearenak bakarrik, berezkoarenak ere bat. Berezko legea dezu, bada, Jaungoikoak naia **azaltzen** di-

guna, ta beronen betetze zintzoa naitaetzkoa dute gizasemeak betiko osasunerako (3).

Elizeak, beraz, agindu oni jarraiturik, noiznai, baiña azken urteotan ugariago eman izan ditu, bai ezkontzaren izateaz, bai ezkonduak beren eskubideak ta egikizunak artez erabilteaz, agiri egokiak (4).

IKASKETA BEREZIAK

5. Egiteko orren barne-deiak bultzera-ginda, oroipen ederra duen aurreko Juan XXIII garrenak, 1963'ko epaillean jarritako Iker-sailla ontzat eman ta zabalagotu genuan; Iker-sail edo batzorde au osotzen zuten, ez bakarrik gai onetaz zer-ikusia duten ikaskizunetan eskolatutako gizaseme askok, baita senar-emazte bikoteak ere. Ta beronen zeregiña zan: ezkonduen bizitzari ta batez ere jaiotza neurketa artezari dagozkien auziei buruzko iritzi ta esanak jaso ta azterturik, jakingaizko gorputz egoki bat osofzea, Eliz-maixutzak gero, kristauak eta osantzeko gizasemeak gai onetaz munduan zuten itxaropenari, erantzun egokia eman al zezakean (5).

Jakintsu auen iker-lanak, eta gure Anai artzain askoren iritzi ta aolkuak, batzuk berenez ta beste batzuk Geuk eskatuta biadutakoak, gai korapillotsuaren alderdi guztiak arduratsuao gogotan artzeko lagungarri izan znikigiu. Origatik, guztiei Gure gogo eskerrez betea ager-azten diegu.

EUZ-MAIXUTZAREN ERANTZUNA

6. Ala ere, Batzorde ark azken-iritzi bezela arturiko erabakiak Guk ezin izan ditugu ortakotzat artu, ezta auzia bere garrantzi osoan Geronek aztertu gabe utzi ere; batetik, batzordekoen artean eskeiñi bear ziran moral arauetaz iritzi-batasun osorik agertzen etzalako, eta bestetik, Elizeak beti ta tinko eman duen ezkontzarekiko moral-irakaspenaren kontrako asmo ta erabaki batzuk azaldu ziralako.

Beraz, aurkeztu izan zaizkigun agiriak arduraz arakatu, gogo-barnez gauzea ondo ausnartu ta otoitz sarri-berrituz Jainkoari argia eskatu ondoren, orain, Kristo'k guri eman iko aginduaren indarrez, auzi astun auri gure erantzuna eman nai diegu.

II

IRAKATSI-OIÑARRIAK

GIZONA ERABAT IKUSITA

7. Aur-ugaritzeari dagokion auzia, beste edozein biziarekiko arazo bezela, bere barrutiko beste errazoi berezien gaiñetik, au da, bioloji naiz sikoloji, erriketa naiz gizarte-ikuspegi gaiñetik begiratu bear da, gizon

osoa ta goi-deiez duen egiteko osoa artzen duelarik; eta egiteko au ezta izatezko ta lurreko gauzai dagokiena bakar-bakarrik, izatez goitiko ta betikoeri dagokiena ere ba-da. Ta askok, jaiotzak neurriratzeko asmatu dituzten bideak ontzat ematen alegiñak egiñik, bai ezkonduen maitasuna, bai aitasuna bere egitekoari buruz eskatzen zaion ezaugera atxakitzat artu dituzten ezkerok, ezkontzako bizikerari dagozkien bi egi aundi auk, nai ta ez, zeatz mugatu ta argi-azibear dira. Ori egingo degu, gogora ekarriaz batez ere, Batikano'ko Íf'garren Batzarrak gai onetaz oraintsu «Gaudium et Spes» de-ditzaion Artzai-agirian ziur ta legezko jakin-erazi zuena.

EZKONDUEN MAITASUNA

8. Ezkonduen arteko maitasuna, ba, bere egiazko izate ta bikaintasunean aundia-go egiñik agertzen zaigu, maitasun ura, Jaungoikoagandik, goi-goiko iturburu bate-tik bezela, ixuria dala gogorazi ezkerok, au da, maitasuna dan Jainko-Aitagandik, «se-nitarte guztiak jzena zeruan ta lurrean Ama-gandik artzen dute-ta» (7).

Ezkontza ezta, beraz, alabear batez edo izadiaren indar itsuen ibillitik sortua, Jainko Sortzailleak, gizadian bere maitasunezko asmoa betetzeko, jakintsu ta arduraz egiña baiño. Senar-emazteak, beren alkar ematearen bitartez, soillik berena ta bakarra baita,

beren nor-izateen alkartasun gero ta bete-
agora jotzen dute, bizidun berriak sortu ta
azte-lanean Jainkoarekin baturik.

Ezkontzak ba-du, gaiñera, bateo santuz garbitutako-engan esker-sakramentuaren ezaugarri bikaiña, Kristo ta Elizaren arteko batasuna adierazten duena.

BEREIZGARRIAK

9. Gauzok beren argitan jarriarik, ederki agertzen dira ezkon-maitasunaren ezaugarri ta eskabide bereziak, beuron barne-ingurue-kin zeatz jabetzea garrantzi aundikoa izanik.

Maitasun bat da lenen ta bein, oso giza-koia, au da, sentikorra ta gogozkoa. Ezta, ba, berezko seña-ren edo sentipenaren oldar utsa; baita ere ba-da, ta oroz gaiñetik, naimen azkearen egintza, eguneroko bizitz-ar-loari dagozkion neke-pozaldiakin iraun eze-zik, geitu ere egiten dana; senar-emazteak orrela, biotz bat eta arima bat egiñik, beren giza-osotasuna alkarrekin iritxi dezaten.

Maitasun betea ere ba-da, au da, nortzuen arteko maitasunaren era apartekoa, beronen bitartez senar-emazteak dana baitute gogo onez erdi-banatzen, bear eztiran ixilgordeak ebaki ta norbere onerako bakarrik diran aukerapenak uxaturik. Bere ezfkon-laguna egiaz maite duenak, eztu maite noski arengandik artzen duenagatik soilki, bera-gatik baiño; ta au pozarren dagi, bere ematez ura aberastu nai du-ta.

Ezkon-maitasuna, gaiñera, zintzoa ta besterik nai eztuna degu, bizitz azkeneraiño izan ere; senar-emazteak olaxe asmoz artu oi dute azke ta jakitun ezkontz-lokarriz korapillotzen diran egunean. Ezkonduen zintzotasun au, batzutan zailla ta sostortsua izanik ere, iñork ezin dezake eziña danik esan, beti ere zindoa ta merezi aundiz betea baizik. Gizaldi zear, senar-emazte askoren jarraibidea'k ez dute bakarrik zintzotasuna ezkontz-izateari berezko zaiola erakusten, baita bertatik, iturritik bezela, beren zorion sakon iraunkorra sortzen dala ere.

Maitasun ugarikorra degu, azkenik, senar-emazteen batasunean osoz agortzen eztana, aurrerago joanik, bizi berriak sortarazten dituna, aurki. «Ezkontza ta ezkonduen maitasuna, berez, umeak euki ta aztera zuzenduak dira. Seme-alabak dira egiaz ezkontzaren ekarririk bikaiñena, ta senar-emazteen onerako ere ez laguntasun txikia» (8).

ERANTZUN BEARREKO AITATASUNA

10. Auengatik ezkon-maitasuna'k senar-emazteai eskatzen die beren egitekoa ondo ezagutu dezatela, jakiñezko aitatasun osora jorik; ontaz, bada, gaur egunean ainbat eskatzen dan ezkerro, iritzi zeatz argiak eukitea naitaezkoa zaigu. Beraz, alkarren artean zer-ikusia duten berein ikuspegi zuzen go-goan artu bear dira.

Lenengo, bioloji-ekiñari begiratu ezkerro, aitatasun jakiñak esan nai du ari dagoz-

kien egitekoak jakin eta betetzea; giza-errazoiak, bada, bizia emateko duen al-izatean, bioloji-legea'k asmatzen ditu, giza-kumearen atal diranak noski (9).

Berezko sen eta griñen indarra buruz, ordea, jakiñezko aitatasunak beregan darاما errazoiak eta naimenak aiei geiago egiteko bear duten nausitza naitaezkoa.

Gorputz, ekonomi, sikoloji ta gizarte-barrutitik begiratu ezkerro, aiek esan dezakegu jakitezko aitatasunez jokutzen dutela, naiz, erabaki zur ta gogo aundiz seme-alaba asko izateko asmoa arturik, naiz zio astunez ta moral-aginduak beterik, aldikada batean edo ©pe gabeko aldian, beste semerik ez sortzeko erabakia artzen dutenean.

Guenean, jakiñezko aitatasun onek batez ere beste errazoi sakonago bat darاما bere'kin, moral-maillari dagokiona, antolabide deitua ta Jainkoak ezarria: kontzientzi zuzena degu onen egiazko adierazle. Ortaz, jakiñezko aitatasunak auxe eskatzen du: senar-emazteak, on-gauzen balio-mailla zearo beterik, onartu ditzatela Jainkoarekin, beren buruekin, sendiarekin, gizartearekin ditzuten beren eginbearrak.

Emendik, beraz, senar-emazteak, bizia eman arazoan, eztira azke beren kasa jokatzeako, berak beretara jarraibide onak zeintzuk zaizkien oso nai-erara bereizteko noski; besterik dezu, beren jokabidea Jainko Sortzaillearen asmoarekin batu bearra baidute; asmo au, ordea, ezkontzak berak eta

onen egintzak azaltzen digu, ta Elizeak aldi oro irakatsi digunak (10).

EZKON-EGINTZAREN IZATE TA ELBURUA

11. Senar- emazteak barru ta garbi alkartu ta bidenabar giza-bizia edatzen duten egintzok, garbi ta duiñak (11) dira, Batzar-rrak oraintsu gogorazi zuen bezela; ta beren bidezko izatea ez dute galtzen, naiz-ta ez konduen borondatetik ez letorken zerbait-gati'k antzu gelditzen dirala aurrez ikusi, orduan ere beren batasuna adierazi ta sendotzeko baitira. Izan ere, jardunak darakusanez, eikon-egikun bakoitzetik ezta sortzen bizi berri bat. Jain'koak, bada, jakituriz jarri ditu berezko legeak eta sorpen-aldiak, jaiotzak bata besteagandik berez urrun-erazten dituztenak noski. Elizeak, ala ere, beti irakatsi ta adierazo duenez izadi-legearen aginduak bete bear dituztela giza-semeai esan-aziaz auxe irakasten du: edozein ezkon-egintza berez giza-bizia ekarteko bear duela izan (12).

BATASUNA TA AUR-LANA: BI ALDERDI BANA-EZIÑAK

12. Eliz-maixutza'k sarri emana dan irakaspene onek, Jainkoak ipiñi ta gizonak bere oldez ausi ezin duen lokarri zatigaitza du oiñarri, batze ta sortze-esanaia-aren artean izan ere, ta zer biok ezkon-egintzan daude.

Ezkonduen egintzak, ain zuzen ere, bere barru-barruko izakeraz, senarra ta emaztea sakonki lotzen ditula, bizi berriak sortzeko ere gai egiten ditu, gizonaren eta emakume-aren izatean bertan irarrita dauden lekeen gisa. Bi ertz errotiiko auek, ots, batasunezkoa ta umetarakoa, gorde ezker, ezkon-alkartzeak, alkar-maitasunaren egiazko esangura ta gizonak aita izateko duen goi-deierer; mailla garaia, oso-osorik dauzka. Uste degu, gure garaiko gizonak irakaspen au giza-errazoiari ondo dagokiona dala ulertzeko ta geiago dirala.

JAINKOAREN BURUBIDEETAN ZINTZO JOKATU

13. Argi dago egon ere, ezkon-lagunari, onen egokera ta gurari zuzenak aintzat artu gabe, ezarten zaion ezkonbatzea, eztala egiazko maite-egipena, ta beraz, senar-emazteen arteko artu-emanetan moral-mailla zuzenaren eskabide bat alde batera uzten dala. Orrela, gauzea gogotan artu ezker, aitortu bear da, guztion Egille dan Jaungoikoak lege bereziak ezarri dizkion bizi-sortze-indarraren kontra dagoen alkar maitasunezko egipen bat, ezkontza ipiñi zuen Jainko-asmoaz besterakoa ta giza-biziaresi Egillearen gogoz kontrakoa dala. Beraz, Jainkoaren doai au darabilleenak, naiz-ta erdizka bere esangura ta elburua kendurik, bai gizonaren bai emakumearen izatearen

eta beren barrengo artu-emanen kontra jotkatzea da, baita gaiñera Jainkoaren asmo ta nai santuari jarkitzea ere. Bestera, sorpenlegea'k zainduaz ezkon-maitasunaren doaia erabilten duenak ez dio ziurki bizitz-iturrien jabe danik, Egilleak ezarritako as moa ren zerbitzari baizik. Gizonak ez duen bezela, osoan artuta, bere gorputzaren eskubide guztizkorik, eztu era berean, eta berarizko errazoiz, ain zuzen ere, ortarako ditun indar sortzarazleetan ere, auek beren izatez giza-bizia sortzeko baitira, ta onen asiera Jainkoa da. «Giza-bizia sakratua da —gogorazten zuen gure aurretiko Juan XXI li'garrenak—; bere asiera-asieratik berekin dakar Jainko Sortzaillearen egipena» (13).

JAIOTZAK NEURTZEKO BIDE DEBEKATUAK

14. Ezkontzan buruzko irakaspen giza tiar eta kristauaren len- oiñarri auetan sendoturik, berriz ere adierazi bear degu, jaiotzak neurtzeko legezko era bezela, osoosoan atzerazi bear dala aurretik asitako egintza sortzaillea zuzenean eba'ki ta geldiaztea, ta batez ere norbere naizko aur-egozte edo galtzea, naiz-ta osasunagatik egiña izan (14).

Berdin baztertu bear da, Elizak maiz jakin-erazi duenez, dala gizonena dala emakumeen a, zuzen-zuzenik betiko naiz aldiko agordura billatzea (15).

Ezetsi bear da gaiñera edozein egite, bai

ezkonegintza aurretik, bai bera egitean, bai bere izatezko ondoren bitartean, ugalmena eziñezko biurtzea jritxi-elburu naiz egin-bide bezela duena (16).

Ezta, norberak naita antzu biurtzen diran ezjkon-egintzak legezkotzeko, errazoi auek ezin litezke indartsu bezela ekarri: au da, gaitz au autatu bear dala, astun-ezagoa djrudilako; edo-ta, egintza oiek olako zer bat osotzen dutela aurretik ipiñi diran naiz gero ipiñiko diran egintza ekarkorrakin, eta beraz moral ontasun bat eta berdiña zatikatuko luketela. Izan ere, egia da, astun-ezago dan oitura-gaitz bat jasatea, gaitz aundiagoak iges egin naiz egite obe bati nasaia-go ekiteko (17), iñoiz zillegi izan arren, egundo ere eztala zillegi, ezta errazoi aundienakin ere, ona ekarteko, txarra egitea (18): au da, ezta zillegi, berenez moral-maillea zapaldu ta beraz gizonarentzat duin-eza dan zer bat naimenaren baiezko egintza biurtzea, naiz-ta orrela egiñik, giza-seme batzuen, fa mi l j'en edo gizartearen ona aldeztu ta indartzea gura jzan. Onetatik, beraz, osoro oker dabil, norbere gogoz antzututako ezkonegintza bat, eta beraz loia barruz ta izatez, ezkonduen bizitz osofko alkar batze umekorrakin erabat begiratu ezker, gain-edertu ditekela uste duena.

OSASUN-BIDEAK LEGEZKO DIRA

15. Elizak, orde, eztu txartzat jotzen gorputzeko eri-miñak sendatzeko bearrezko

diran osasun-bideak artzea, ezta ortik, naizta aurrez ikusita, sorpenerako eragozpenaren bati bide emanda ere, eragozpen edo oztopo au errazoiaren bat dala-ta, zuzenean billatu ezik beintzat (19).

ANTZU-ALDIETARA JO DITEKE

16. Gaur egunean, ala ere, Elizak ezkonduen oiturak zuzentzeari buruz eman izan ditun irakatsien kontra errazoi batzuk jartzen dira, gorago (3'garren zenb.) esan degunez, giza-adimenaren eskubide ta doai dala errazoirik eztun izadiaren indarrak neurtu ta eurok giza-semeen onari dagokion elburura zuzentzea. Ontara ezker, batzuk galdetzen dute: gaur errazoizkoa ez ote da gai oni begira, kako askotan beintzat aurjaiotzak mañaz neurrira ekartzea, egikera onekin familiko batasuna ta pakea obeto zaindu ta aurretik jaiotako seme-alabak era egokiagoz azitzeko bideak lortzen baldin ba'dira? Galdera oni argi ta garbi erantzun bear zaio: au da, Elizea dala, gizaseme adimenez jantzia bere Egillearekin ain urbilxe alkatzen duen lan ontan, giza-adimenaren eragiña, beste iñork baiño lenago, aitatu ta goratzen duena; baiña au egin bear dala diño, gisa barean, Jainkoak ipiñitako gauzen antolamentua zainduaz.

Beraz, jaiotzak bata-bestetik urrun-erazteko, naiz ezkon-lagunen gorputz-gogoen egokeratatik naiz kanpotiko gauzen inguru-UNETATIK sortu izan diran benetako errazoi-

rik ba'da, Elizeak irakasten du, senar-emazteai zillegi zaiela ordun,ernal-antzudiran aldietan bakarrik aragiz batuta, sor-almene-tan sustraituriko izadi-gorabera jarraitzea; orrela, gorago azaldu degun oiturazko irakatsia ezertan ere ausi gabe, jaiotzeko seme-alabak neurrira ekarriaz (20).

Elizea bere buruari ta bere irakaspenari atxikia datza, bai eme-indar bageak diran aldiak erabiltzea senar-emazteai zillegi zaiela uste duenean, bai ugaltzearen kontrako bideak, artzea, auek agiriz errazoi garbi ta astunez artuak izanda ere, beti debekatua bezela gaitzesten duenean. Bi gertaketa auen artean, izan ere, alde aundia dago: ezkon-laguna'k, lenengoan, lege baliatzen dira izadiak eman dien eskubide batekin; bigarren, berak galazten dute sorpen-antolabideak bere izatezko aurrerapenik izan ez dezan. Egia da, senar-emazteak kasu bietan egiaz alkar artzen dutela egi-itxurazko errazoiz umeak alderatzeko, ta ondorenik ez dala izangoko segurantz billaturik noski; baiña egia da, era berean, lenengo kasuan bakarrik, senar-emazteak ezkontza-batzeari uko egiten diotela sortzeko gai diran aldietan, aurak sortzea zio ta errazoi zuzenez nai ezianean; sortzeko gai ez diran aldiak eltzerakoan, ordea, aragiz batzera jartzen dira berriz ere, alkarri maite-txera ta bata-besteari aginduriko zintzotasuna zaindu alizateko. Orrela egiñik, aurki, maitasun zuzenaren ezaugarria damaie alkarri, egiz ta osorik.

JAIOTZAK GAIZKI NEURTZETIK LETOZ- KEN ONDOREN ASTUNAK

17. Gizon artezak, gaiñera, obeto ulertuko dute, Elizeak gai oni buruz irakasten duen egia, aur-jaiotzak ugaritzea maiñaz esitzeko erabilliak diran bide ta errazoetatik datozen ondorenak gogoznartu ezker. Lendabizi begiratu bezate arretaz, onela jokatuturik, nolako bide zabal ta erreza irikitzen dan, bai senar-emazteen zintzotasunik ezerrako, bai oituren arau-zeaztasuna andik eta emendik aul-azita uzte'ko. Ezta gauzen oitura luzerik bear norbaitek giza-argaltasuna ezagutzeko, ta gizonak —eta batez ere griñetan ain aulak diran gazteak— moral-legeari eusteko, laguntza bear dutela ulertu dezaten, ta oso kaltegarri dala lege ori oinkatzeko bide erreza aiei eskeintzea. Baita bildur izatekoa da, gizonak, sorpenaren kontrako oituretara egiñik, emazteeri zor dioten begirunea galdu, ta, auen gorputzgogoen neurrian kasurik egiteke, aurrerantzean ezkontide itzalgarri ta maitekor bezela barik, beren griña-irritsen tresna zirtzil egin litza'ketela.

Ausnar bezate buruenik, arduraz, zein indar arriskutsua onela ematen zaien oiturallegeen aginduetaz bat ere axolarik ez duten erri-agintariei. Nork arpegira bota Lasterri bateko agintariei, sendiko oztopo bat askatu dezaten senar-emazteai zillegi bezela ezagutzen zaiena, beren aberri osoko gorabera ta istilluak erabakitzeko, uraxe bera

artzen baldin ba'dute? Nork die erri-agintariei galazik, aur-sortzeari aurkako bide beren iritziz indartsuen diranak ontzat artu, ta baita guztiai eurak ezar-aztea ere, au bearrezko zaiela uste duten bakoitzean? Olan, egiazki, gizonak, naiz norberak, naiz familiak, naiz gizartean Jainko-legea betetzean izan oi dituzten eragozpenetatik iges egin nai dutenean, erri-agintarien eskuetan utziko lukete senar-emazteen barru-barruko arazorik banako ta ezkutuean tarte sarzkekoa.

Origatik, bizia sortzeko zeregiña gizasemeen iritzi-arriskuan ipiñi nai ezpa-degu, muga irago-ezin batzuk nai ta ez jarri bear dizkiegu gizonak, bere gorputzaren eta onen berezko ugal-iñarkunen gaiñ izan deznken almen orri; neurri-muga batzuk, diñogu, iñori ere, ez gizon soil ez; agintez jantzian, austea zillegi etzaizkionak.

Muga auek eztira jartzen, gorago aitatu ditugun oiñarriai jarraituz eta gure aurretiko Pio XII'garrenak argitu zuen osozko oiñarri diotenak artz ulertuturik, giza-soin osoari ta beronen izadi-zeregiñai zor zaien lotsarren baizik (21).

ELIZA, GIZA-BALIO EGIZKOEN BABESLE

18. Emaniko irakaspen au, aurrez ikusi dezakenez, ez dute danak ain errez artuko bear bada, or-emengo abotsak, gaurko zabalkunde-tresnakin geituta, askotxo dira ba

Elizaren esanakin bat ez datoztenak. Elizea ezta arritzen, beraz, bere Jainko Sortzaillearen antzera, «ezaren ta basaren ezaugarri» jarria dalako (22); augatik, alere, ezta uzten oitura-lege osoa, bai izatezkoa bai Ebanjelioan datorrena, apal ta indartsu aldarrikatzeko artu zuen langintza.

Bi legeok Elizeak sortu etzitun ezkerok, ezta beraz beuron jaun ta jabe, jagole ta adierazle bakar-bakarrik baiño; ta iñoiz ere etzaio aizu berez zillegi eztana zillegitzat ematea, au bere izanez gizonaren egiazko onari beti aurka dago-ta.

Elizak ba-daki ondo ere, ezkontzaren moral-legea osorik zaintzean, gizonen artean benetako erri-kultura bat jarteko lanari indar ematen diola; gizonari bultz daragio, gaiñera, bere arazoai u'ko egiñik, teknika-bideen lillurapean galdu ez dedin; eta one-la dagi, ezkonduen duintasuna zaintzen duenean. Elizea, gisa ontan jokaturik, ots, Salbatzailleak egin eta irakatsi zuenari oraturik, gizonai maitasun zintzo ta beroa diela agertzen da, auei «giza-sume guztien Aita dan Jainko biziaren bizitzan seme bezela erdikide izaten» (23) lagundu nai dien adiskide zindo agertu ere.

III

ARTZAIN-JOKABIDEAK

ELIZA, AMA TA IRAKASLE

19. Gure itz onek, ala ere, ez lituzke jende guztien Ama ta Irakasle dan Elizaren pentsakera ta kezkak osorik azalduko, gizonai, ezkontzari buruzko Jainko-legea ontzat artu ta bete dezatela eskatu ondoren, gaurko egunean sendiak eta erriak larritzen dituzten bizitz-kondizio latz artean ere, jaiotz-neurritze on baten bidean arnas emango ez ba'genieke. Elizeak, izan ere, gizasemeai buruz ezin dezake bestela jokatu Kristo'k berak bezela baizik: au da, eza gutzen du aien argaltasuna, erruki ditu laguntaldeak, pekatarietako besoak zabaltzen dizkie; baiña ezin dezake utzi bene-benetan bere egi jatorrera biurtu ta Jainko-arnasak zuzenduriko giza-biziari osorik dagokion legea irakatsi gabe (24).

JAINKOAREN LEGEA GORDE DITEKE

20. Jaiotzak zuzenik arautzeari buruz Elizeak irakatsia, Jainko-legea bera jakin-erazten duena noski, askori ezpai gabe zaila irudituko zaie, baita iñondik inora gorde eziña ere. Ta, egiaz, barne-jatortasunez ta obariz eder diran gauza on guztiak bezela, lege onek gizon bakoitzaren, familiaren

eta gizartearen aldetik egiñal gartsuak eta neke aundiak eskatzen ditu. Ezta, gaiñera, berau gorde ere ezingo litzake, giza-semeen gurari ona jaso ta indartzen duen Jainko-graziaren laguntza gabe. Gauz au arretaz ausnartzen dutenak, ordea, neke oiek gizonen duintasuna geitu ta gizarteari mesedeak dakarzkitelara, ikusiko dute aurki.

NORBERE JABE IZAN

21. Jaiotzeko diran aurrak eraz ta zuzenki neurtzeak auxa eskatzen die senar-emazteen, aurrenik: biziari ta familiari buruzko benetako balioak zeatz ezagutu ta azterkatu c'itzatela, ta gero, beren ute ta barne-zirkiñak neurritu ta eztitzera oitu ditezela. Ezta dudarik, izan ere, berezko zakar-indarrak, errazoi ta naimen azkearen bidez, menperntzeak askesis bat, jarduera senda bat, eskatzen duela, ezkontz-bizitzari dagozkion inaita-erakutsiak, esate baterako, zuzen-egokiak izan ditezzen, au batez ere noizean beingo aldietan txautasuna gordetzeko, nai ta ez bear da-ta. Senar-emazteen garbitasuna diztiratzen duen lege-gordetze onek, beren alkar-maitasunari, kalte egin bearrean, giza-balio gurenago bat dakarkio. Jokabide onek eten gabeko indar-galgatze ta ardurea eskatzen du, baiña senar-emazteak beren nortasuna osoan azi-azten dute, barne-ondasunez ere aberasturik: orrek, bada, narotasun ta pake-arnariak dakarzkio etxeko bizitzari, baita beste era batzuetako

korapilloak askatzen lagundu ere; orrek, ez-konduen artean, bata-besteaganako ardura ta lotsa aizatzen ditu; senar-emazteei, egizko maitasunaren kaltegarri dan norbere buaren zalekeri geiegia uxatzen laguntzen die; ta, bide batez, berak egin bear dituzten arazoak arduratsuago betetzeko kementa ematen die. Orrek, azkenez, gurasoai beren seme-alaba'k azi ta ezteko aginpide sakon eta eragikorragoa dakarkie, ta olan umeak eta gazteak, urteetan aurrera doaztelarik, giza-balio egiazkoak gero ta obeto ikusten dituzte, ta gogo ta zentzu-indarretan nara ta egoki ari dira.

GARBITASUNAREN ALDEZKO GIROA SORTU

22. Eta abagune au eskeintzen zaigun ezker, ume-azleai, ta giza-bizitzaren guztizko onean erantzun-bearra duten guztiei, gogorazi nai diegu, garbitasuna gorde ta indartzeko giro egokia naitaez sortu bear dala, benetako askatasunak nasaikeria azpiratu dezan, moral-maillako arauak osotaro zaindurik.

Gaur, bada, gizarteko artu-emanetarako zabalkunde-tresnak, zentzuak aizatzen dituzte ta oitura nasaiai jatekoa eman, baita idazten dan edozein zatarkerik eta ikuskizun lizunak ere; ta guzti auek, erri-lantzea aurrera eramaten ari diranen naiz gogozko on bereziak zaintzeko ardura duten gizon guztien ageriko ta ao betezko gaitzes-

pena bear dute. Alper zaio, ba, edozeiñi ola-ko gaiztakeriak, antze ta irakaspenak dirala-ta (25), naiz, bear bada, errialde ontan erri-agintariak uzten duten askatasuna oiñarri arturik, ontzat ematen saiatzea.

ERRI-AGINTARIAI DEI

23. Onela, beraz, Laterri-agintariak itz egitea eder zaigu, bera'k baitira batez ere guztien ona zaindu bear dutenak, eta oitura onak jagotzean ainbat mesede egin dezakenak: ez egizute sekula ere zeuon errian oitura garbiak usteltzen laga; debeka ezazute oso ta bizi, erriaren lenengo zatiñoa dan familian lege-bidez, onako jzadi ta Jainko legeari bekoz beko legoken oiturarik sartu ez dedin. Erri-agintaritzak, bada, beste bide batez egin al du ta egin bear du erri-azi ta indartzeari buruzko auziaren askapena: au da, zein oitura-legea zein erriarren askatasuna oso ta sendo jarriarik, familiak lege arduratsuak emanaz ta erriak jakintsuki ezi-aziaz.

Ondo dakigu ziurr'nk asko, onek, eragozpen aundiak dakarzkiela erri-arazoetan nagusi diranai, batez ere aurrera-bidean dauden uri ta errietan. Eta guk, oiek dituzten kezka ta ardurak gogotan izanik, argitara genitun gure Idazki nagusiak, Errien Aurrearakuntza —Populorum Progressio— baitik bat. Orain, ordea, geure aurretiko Juan XXIÍ'garren Aita santu agurgarriakin, itz auek berrizten ditugu: «Buruausteok. . era-

baki bear ditula gizonak, bere duintasuna ren kontra legozken bide ta errazoietara jo gabe; ta ortarako jo oi dute bat ere lotsa gabe, gizona ta onen bizia osoan gai-indarrarenak dirala uste dutenak. Auzi au onela bakarrik askatu ditekela uste degu: ekonomia eta gizarteko gauzen aurrerakuntzak, bai erritar bakoitzarenak bai gizarte osoarenak, egizko balioen izena zaindu ta geitzen baldin ba'dituzte» (26). Ezta, ziurki, irain aundi gabe ezingo zaio au Jainkoaren ardurari egotzi; aitzitik, erriak zuzentzeko ganora-ezetik, naiz gizarte-zuzentasunaren zentzua auldu dalako, naiz ondasun-pilloa norbere aukerarako bildua dalako, baita azkenez erriak eta bertako semeak gero ta obeki bizi izateko artu bear dituzten lan-neke ta sorta-oiñazeak eramaterakoan, zabar itxusi agertzetik ere, datorrena dirudita (27). Txalogarri bai litzakela, arazo ontan erantzun-bearra duten agintari guztiak —beuretatik batzuk dagoneko ere ederki egiten duten bezela— egiñal berri indartsuz lan egingo ba'lukete! Ez, ez ditela gelditu giza-sendi aundiko alderdi guztien artean alkar-laguntza zabaltzeko ardura-kezka: onela, zelai ia mugalde gabeak nabari zaizkigun derizkiogu, laterri arteko lan-antolaketa aundien eragiñeri irikiak.

GIZON JAKINTSUEI

24. Orain, ordea, gure aolku-itzak bitez arnasgarri gizon jakitunentzat; auelk, ba,

«ezkontzaren eta sendiaren onerako, ta kontzientzien pakerako lan aundia egin dezakete, beren ikasketak alkartu ta bat egiñik, giza-sortzearen neurtze garbi baten al dezko kondizio banak sustraitik argitzen alegintzen baldin ba'dira» (28). Aurrenik —Pio XM'garrena'k lendik opa zuenez— auxe naikidatu bear da: senda-jakintzak eman dezala berezko aldi-unak kontuan artuta, jaiotzak eratsu neurriratzeko oiñarri naiko sendo bat (29). Jakintsuak onela, katoliku izena daramaten aiek batez ere, gauzea argi dagola beren egitez erakutsiko dute, Elizak irakasten duenez, au da, «ezin ditekela, bizia besteri emateko ta ezkonduen alkar-maitasuna indartzeko Jain'ko-legeen artean, egiazko alkar-aitu-eziñik izan» (30).

SENAR-EMAZTE KRISTAUAI

25. Gure mintzoa orain, era berariz, geure seme-alabaengana doa, Jainkoak bera zerbitzeko ezkontz-bizitzara dei egin dien aiengana batez ere. Elizeak, ba, Jainko-legearen ausi-eziñeko eskaerak irakatsiaz gaiñera, osasuna iragarri ta sákramentuen bitartez esker-bideak zabaltzen ditu, ta onek dagi gizona izaki berri, maitasunean eta egiazko askatasunean bere Egille ta Salbatzailearen asmo gurenari erantzun eta Kristo'ren uztarria leun aurkitzeko gai egin dezan (31).

Senar-emazte kristauak, bada, aren abotsari zintzo jarraiturik, gogorazi bezate, ba-

teoan asi zuten kristau bizatzarako beren goi-deia, ezkontzako sakramentuakin geia-go edatu ta sendo-azi egin oi dala. Senar-emazteak, beraz, «sendo-azirik eta doneturik bezela daude», beren betebearrak zintzoki egin ditzaten, beren goi-deia bete-betean burutu ta be ra i dagokien testigantza munduaren aurrean erakuts-azi dezaten (32). Berai utzi die, ba, Jaunak bere legearen santutasuna, gizasemeai ager-azteko arazoa, ta baita, giza-biziaren Egille dan Jainko-maitasunerako lagungarri izanik, alkar korapillotzen duen lege bereran samurtasuna adieraztekoa ere.

Ez ditugu iñolaz ere gorde nai emen kristau ezkonduen bizitzak bere ibillian ditun koska ta zailtasunak, batzuetan oso astunak: berentzat, bada, gu bakoitzarentzat bezela, «estua da atea, ta mearra bizitzara daraman bidea» (33). Bizitz onek emaniko itxaropenak, argi dizditsu gisa, erraiñutu bear du beren bidea, «aldi onetan zur eta zuzen eta Jainkozale bizi izateko» (34), gogo gartsuz leiatzen diran bitartean, «mundu onen irudia igeskor» dala argiro jakifiáz (35).

Senar-emazteak, beraz, ar bitzate gogotsu dagozkien neke-lorrak, uts ematen eztun fede ta itxaropenez indarturik, «gure biotzetan, ixuri zaigun goi-arnasaren bitartez, Jainko-maitasuna edarazi da-ta» (36); eska bezate gero otoitz iraunkorrez Jaungoikoren laguntasuna ta atera bezate batez ere eskerra ta maitasuna iturri agor-eziña dan

Eukaristitik. Oraindik ere pekatuak atz-artean artuko ba'litu, ez bitez gogo auldu, apal eta iraunkor penitentzi-sakramentuan ugari ematen dan Jainkoaren errukira jo baizik. Orrela, alegia, eldu al izango dute ezkonduen bizitzari dagokion osotasunera, Apostoluak idatzita dagoanez: «Zuok, senarrok, maite itzazute zuen emazteak, Kristo'k Eliza maite duen bezela (...) Senarrak ere maite izan bear dituzte beren emazteak beren gorputzak bezela. Bere emaztea maite duenak, bere burua maite du. Iñork eztió ba iñoió bere aragiari gorrotorik izaten, janaritu ta babestu baizik, Kristo'k bere Elizea bezela (...) Aundia da ezkutapen au, Kristo'ren eta Elizaren artekoa, diot gero. Zuori begira, zuetako bakoitzak maite beza emaztea bere burua bezela, ta emazteak begirunea izan bezaio senarran» (38).

ETXE-BIZITZEN ARTEKO APOSTOLUTZA

26. Jainko - legearekiko zintzotasunaren alegin gartsuz iritzitako frutuen artean, ederrrenetariko bat degu, senar-emazteak ez gutxitan beren bizi-izatez ikasiaren erdikide beste batzuk ere egitea, opa izatea. Ortik dator, erritar edo laikoen goi-deiari era berri ta garrantzi aundiko apostolutza batek arlo zabala edatzea, au da, senar-emazteak berak egiten zaizkigu beren kideko senar-emazteen gidari. Ta auxa da, dudarik gabe, gaur kristau apostolutzak ditun era ta tankeretatik aukerakoena deritzaiona (38).

OSAGILLE TA OSASUN-ARDURA DUTENAI

27. Aintzakotzat artzen ditugu era berean osagilleak eta osasun-ardura dutenak, giza irabazi guztien gaiñetik, bakoitzak bere bizi-moldeari lotuta, beren kistar deiaren goi-eskabideak zaindúz batez ere, ari diranak. Beude, bai, aspertu gabe fedeakin eta errazoi zuzenarekin bat datozen erabakiak aurrera eramaten, auenganako ederra ta eraspenna, beren ingurukoaren artean ere giro berezia sorturik. Beukate, gaiñera, beren egintekoaren arlo beiñenentzat gai zail onetan naitaez bear duten jakituria zeatz eta meatz eskuratzea, berengana onu-billa dijoazten senar-emazteai eskubide osoz berengandik itxaro duten aolku zurra eman ta bide arteza erakusteko gauza izan ditezen.

APAIZAI

28. Zuok, ordea, apaiz seme maiteok, dezuten arazo done orren bitartez gizaseme bakoitzaren eta familien aolkulari ta gogo zuzendari zeratenok, zuengana gatoz uste osoz beterik. Zuei dagokizute, ta zuen arazorik bereziena da —zuei batez ere mintzo nakizute, moral-teolójia irakasten dezutenoi— ezkontzari buruz Elizeak erakusten duena osorik eta argiro azaldu ta begi aurrean jartzea. Eman zuok aurrenik zeuon egitekoa osatzean ikasbide zintzo ta leiala, barru ta azal Eliz-maixutzari eman bear zaiona

noski. ikasbide eri, ondo dakiul«. beor-
baarreiko da iliaiu ditugun -n iolengailt
«»w. bail* E'ii ittMJnf. baia, ar» eoli
aialtiean daukaten Espiritu Santuaren argl
nj.nn (39). Baila ba-dakliuta oto garran'
liltsua dala. |*nde«n barno-petierako la
kristau arriaran batasuna -alli-ko gwitlok,
bat oitu*» gauzatan luí siñiskai lolelan. filii
matiwtiiaiktñ bar aiO>ri la ukel* bal bara
•rabllliaa Augatik, Paul apostolu aundia -H
iti arduratsuak ja-orik. bion guitii barriro
riiaitaQu -Zuoi, anaioi. Jnwkrlo gura Jau
naran iianagalik eska lien ditula! barbara
'>-" taiule ijj" „t ala ai dedilla alderditik
rlrlfc lian man artean. gogo balako ta jrj*-j
baiaiko biil baiiik- 140)

W. KIHIO'TI irakalai osasungarria
atarian ara ai uniafoliaa arímenganako
maitasunaren erakuspen bikain bat baldin
ba'da, au bait ei O* pene i ia mallesunai al
-j'tiaa braneiko dagu, euelan 5a lba li* l
'-ak be>*k. tjijs*m««biii mirtliaiu ta art
•an tantán l-abaiu tiguna da la Ura, bada.
aiiltiaigun apaititra atorri, mundua salba
Here bemk ;41). on» fOvroU agertu un
geiltarektn. ealña aramanker ta errukitsu
pakaiaertokln

Senar «mantak, beiai bsren oitopo ta
neke*»» artean ar*, aurkitu adátela apaita-
mn itntan Ma biotiem gura Salbatial <n-
•an aots ala maitatunaron «laico anta irudi
argia

Uitt o;oi .Tlicm gaiñera, tama maiteok.
El ii-ma li ulu- i jtaVaipen artefa emalean la-

gunuan dion Jainko Arnasa daunak berak
•llttarren blotiak ara barrwi argi ai i la art
balviia amaiera bullí «rallan dituta, gewi*
llurlial «wkirlk. Crakwlii tenar«maitaa i
hearnako :luron otolliarako bidea, baila
garla lliaiutr fede «undií EukarlslI la Pe
nltonlil takramanluaiaara larri urbildu la
beran ernallatununalik iñon rre gogo oroi i
•i dilatan

OOÍZAIAl

30. Orain, barril, oto id.uki oni aliena
emotean. •rlma-zalntian en» anai malte
agurgarrlok, JoInkoerri aren gogoiko onari
burui ardura biil-urbllllarjoi ardi-kide garan
•ikaro. luonrjana hluriiian degu ltialtsu ia
maitekor gure pentsamentua Guiliol, bai,
tutentien díuegu eskabide ltlkor au arl
ma-araioan laguntiaille dituiulen apaixoi
•ia teuen «liitarran buru -ératela, lan egi-
(ule gogotsu la elengabe, eikonlia taitu la
dagokion santutasun** jasota luintien.
•ikon bil . i gero ta indartsuago bere gi-
iatjar ta kistar osotasuna iritxi doian. Ze
ragin au ar taiule gaur reuen erantiun-
bear premiñatkoentzat berela. Onek eska
•ten du, ba, ondo dakliutenei, gífa-ekiiezko
barruli guHfei. ots, ekonomi-gauíal, Irakas-
pen onai la girart«-«skabídea; dagokion ar
irain araioarm eratre anota: jian ara, ba
rruli guiti auek ara berean obetu a J bakarrik
egln diteke, ei eramangarri soilki, baita

errez ta zoriontsuago ere guraso ta seme-alaben bizitza sendi-barrutian, alkfr-aitze anaikor ta paketsuagoa gizartean, Jainkoak munduari buruz duen asmoa zintzoki zaindurik.

AZKEN DEIA

31. Zuok, Anai maiteok, zuok seme-laztanok eta zuok borondate oneko gizaseme guztiok: lan aundia degu, egiazki, azi'keta ta aurrerapen eta goi-maitasun lana noski, orain, Elizaren irakaspen txit sendoan, Pedro'ren ondorengoak, lurbira katolikuko anai gotzaiñakin batera, zintzo bai zintzo zaindu ta adierazten duenean oiñarriturik noski, zuen begi aurrean jartzen deguna. Lan aundia benetan, ondo dakigunez, bai munduarentzat bai Elizearentzat; gizonak, bada, ezin du eskuratu bere barne-indar guztiz nai duen zorion betea. Jainko gurenak bere izatean zur ta maitati betetzeko jarri zizkion legeak gordetzen ezpadiu. Lan ain aundi onerako, beraz, bai zuontzat guztiontzat eta batez ere senar-emazteentzat, santu ta errukitsu dan Jaungoikoagandiko goi-esker ugaritasuna eskatzen degu, onen ezaugarri sendotzat geure Artzain-onespena zuoi biotzez emanik.

Erroma'n, Kepa deunarenean emana, Done Jagoba bidaliaren jai-egunean, 1968'ko garillaren 25'an, seigarren urtez Doipuru geraldik.

VI'garren Paul Aita Santua

OAR RAK

- (1) Pio XI: *Casti connubii*.
- (2) *Math.*: 28, 18-19.
- (3) *Math.*: 7, 21,
- (4) *Coilex Iuris Canonici*, can. 1067.
- (5) AAS, 56 (1964).
- (6) I, *Ioan.*: 4, 8.
- (7) *£/.*: 3, 15.
- (8) *Caudium el Spes*, 50.
- (9) Sanctus Thomas: Sum. Theol., III, p. 94. a 2
- (10) *Gaudium el Spes*, 50, 51.
- (11) *Gaudium et Spes*, 49, 2."
- (12) *Casti connubii*, AAS, 22 (1930).
- (13) *Mater el Magistra*, AAS, 53 (1961).
- (14) Pio XII: Discorsl e Radiomessaffl, VI.
- (15) *Casti connubii*, AAS, 22 (1930).
- (16) *Casti connubii*, AAS, 22 (1930).
- (17) AAS, 45 (1953).
- (18) *Ad Romanos*, 3, 8.
- (19) AAS, 45 (1953).
- (20) Pio XII: AAS, 43 (1951).
- (21) AAS, 45 (1953).
- (22) *Luc*: 2, 34.
- (23) *Populorum Progressio*, 21.
- (24) *Ad Romanos*, 8.
- (25) *inter Mirijica*, 6-7; Vatic. II.
- (26) *Mater el Magistra*, AAS, 53 (1961).
- (27) *Populorum Progressio*, 48-55
- (28) *Gaudium et Spes*, 52
- (29) AAS, 43 (1951).
- (30) *Gaudium et Spes*, 51.
- (31) *Math.*: 11, 30.
- (32) Vat. II: *Lumea gentium*, 35.
- (33) *Math.*: 7, 14; *Hebr.*: 12, 11
- (34) *Til.*: 2, 12.
- (35) I, *Corinl.*: 7, 31
- (36) *Ad Romanos*, 5, 5.
- (37) *Ephes.*: 5, 25, 28-29, 32-33.
- (38) Vat. II: *Apostolicam Actuositatem*, U.
- (39) *Lumen gentium*, 25.
- (40) I, *Corint.*: 1, 10.
- (41) *Ioan.*: 3, 17

Baiezko enziklika bat

Izenpuru onenpean lan polit bat osotu digu Oledtar Andoni'k, markihar idazle gazteak. Eta besteko barik, liburuxka oni amaia emaleko, ark GOGOZ'en oraintsu argitaratu duen lan ori jarriko degu. Gorago esan degunez, kriklikarik naikoa egin dute or-emen, aurreko orrialdeetan datorren Aita Santuaren idazkia dala-ta. Baizuk gaizki ikusi dute, beste batzuk ondo. Idazle gazte onek bere lanean eiola ematen dizkigun pentsamentuak ez dituzte kriklika orren ertzak gaizki azaltzen.

ENZIKLIKA IRAKURRI TA IKASI

«Humanae vitae» dala ta ez dala eztabaidak sortu dira uda onetan. Batikano ostean ez dot uste beste Eleiz-erakuspen batek be sortu dauanik orrenbeste eztabaidarik. Batikano Bigarrenak auts asko kendu ditu, gure Eleiz Ama obeto ta garbiago agertu daiten munduaren aurrean. Auts ori kentzean, ariñegi batzuetan eta bestietan geldiegi ibilli gara katolikuok. Problema asko agirian geratu yakuz. Esate baterako, «Humanae vitae»-k beste problema batzuk be danbalaka itxi dauz: Aita Santuaren mai-xukuntza, berari dagokion menpetasuna, ta abar.

Albistariak eta izparringiak, telebisiñoak eta irratiak, len-bai-len zabaldu ebezan Aita Santuaren esanak. Ez beti egi osoaz. Geienetan azalez ikusi dabela, dirudi. Niretzat, «Humanae vitae» aberatsegi daukagu iru edo lau berbatan sintetitzeko. Orain arte, pildoria ta pildoria ez baiño ez daukue ezer esan izparringietan eta irratietan, beste egi sakonak alde batera utzirik. Geienetan, idazlari orreik teologi ta pilosopi gauzetan jai daukaguz.

Ur garbia nai dabenak iturrira joatea baiño ez dauko. Enziklika ori, irakurri ta ikasi egin bear da, Alemani'tko Gotzaiñak bezela. Orduan bai ulertzeko eran egongo gareala. Iru zati daukoz «Humanae vitae»-k. Lelengoan, gaurko problemak azaltzen daukuz; bigarreanean, problema orreik erabakitzeko oiñarriak jarten ditu, ta jrugarreanean, artzai zuzenbidenk dakaz.

Ezkontzako problemak ez dira gaurkoak bakarrik. Gizadia dan artetik doguz. Orain astunagotu egin dira beste problema batzuekin. Batzuk barriak ditugu ta augaitik erabagi barriak bear dabez. Gauza barria erabagi barria nairik dago. Problema ba-

rriak ditugu, «Humanae vitae»-k diñoan lez: mundua larregi jentetzeko bildurra, bizilekuen beartasuna, edikaziñoa, emakumen nortasuna gaurko gizartean, senar-emazteen maitasuna sendotutzea ta, batez be, gizonaren ludi onetako jabetasuna ta nagusitza. Jaungoikoak ez dauSKU esan bakarrik ugaritu, «ugaritu ta menderatu lur ori» baiño. Augaitik problema oneik gogoan eukitekoak doguz...

AITA SANTUAREN AGIRI AU ZELAN SORTU ZAN

Gauza guzti oneik euki dauz Aita Santuak gogoan enziklika au idazteko orduan. Berak diñosku, ikasten eta otoitzean eten gabe ekin dautsala, berau idatzi baiño len.

«Humanae vitae» buruz ta biotzez egin dako enziklika bat dogu. Batzorde edo komisio bat egin eban Jon XXI li'garrenak gai au ausnartzeko, ta orretarako Paulo VI'garrenak berak be beste jakintsu batzuk izendatu ebazan: bai eleizgizonak, bai kanpoakoak.

Konzilio barruan be, ezkontza zala ta ez zala, pentsakera barri ta zar asko entzun ziran. Gogoratu Alfrimk, Suenens ta Máximo IV alde batetik, eta bestetik Ottaviani ta Heenan.

Komisio orrek 1966'garren urtean amaitu ebazan bere lanak. Eta iru urtean lanean alkarregaz ibilli arren, ez eben alkar artu danak. Komisio orretan eztabaida asko ego-

zan. Komisio orrek egindako lanak erdizka baiño ez doguz ezagutzen.

Aita Santuak, ostera, lan guztiak ezagutzen dauz ondo baiño obeto. «Humanae vitae» idaztean, aurrean euki dauz komisioren erabakiak. 1966'tik 1968'rarte Aita Santua ezer esan barik egon da. Denpora orretan ikasten eta otoitzean jardun dau. Ta azkenean «Humanae vitae» argitaratu dauanean danak bultzaka ari dira.

MAITASUNA TA SEME-ALABAK

«Humanae vitae»-k oso-osorik artzen dau gizona, bere aunditasuna ta makaltasuna bat-batera arturik. Gizona, osorik ikusteko, Jaungoikoak bezela ikusi bear. Au da: Kristo'gandik jakiten dau gizonak bere nortasuna. Ez da naikoa bioloji ta sikolojizko begiekaz ikustea. Ori gizonari erdizka ta zazitza begiratzea da. Orrela, alde bat ikusten yako bakarrik.

Maitasun osoa ez da norberekerian billatzen. Norberekoiak ezin leikie «Humanae vitae» ulertu. Maitasun osoak, ezkonduen zintzotasuna gogortu ta sendotu egiten dau. Ezkonduiek euren zeregiñak ezagutu egin bear dabez, euren maitasuna abereen antzeko maitasuna ez dalako. Oneik euren sezez, instintoz alkartzen dira. Gizonai, ostera, ba-daki zelan umeak sortu ta alkar maitatu. Alkar-maitasuna umeak sortuaz eldutzen da. Umeak dira ezkonduen alerik onenak.

«Humanae vitae»-k ondo erakusten dau aita-ardurea zer dan. Ezkonduak ezin leikiez eurak nai dabean bideak artu, Jaungoikoa-renak baiño. «Humanae vitae»-k sarritan gogoratzen dau «izatezko legea». Ni ez noa izatezko legea zer dan esatera. Orain, beste pentsakera barri batzuk be ba-dagoz orretaz da. Dana dala, Aita Santuak diñosku, ezkonduen artu-emon guztiak, berez bizi barria sortzeko, zabalik egon bear dabela.

Maitasuna ta umeak sortzea alkarturik daukaguz «Humanae vitae» enziklikan. Oiñarri au, gaurko gizaldiak lengoak baiño obeto ikusten dauala diño «Humanae vitae»-k.

Aurrerazaleak, barriztau nairik, oiñarri au beste modu batera azaltzen eben. Oneintzat, ezkonduen artu-emon orreik guztiak batera azalduta izango dira seme-alabak ekarteko, ta ez banan-banan artuta. Teologu barriak onela erabaki dabe problema. Erabaki au, teoriz, artzekoa da, baiña ez orraitio gizona osorik artuta, diñosku «Humanae vitae»-k.

Ezkonduen artu-emon guztiak semeak sortzeko zabalik dagoz. Eskuz-egíñen bidez, oster, ainbat gaiztakeri argitaratu leitekez. Alkar zintzotasuna galduko litzake lenengo. Gizonaren makaltasuna danok dakigu, ta batez be gazteak, gauza oneitan ez dabe bear bide zabalik. Eskuz-egíñen bidez erriakumeari latsa ta errespetua galtzeko arriskua be ba-dago. Norberekeriagaitik, emakumea zerbait izango litzake. Gobernuak,

barriz, onela erabakiko leukie munduko problema.

KRISTO'RI JARRAITZEA, ALDATZ-GORA DOGU

Pastoral arrazoi oneik indar aundia daukie. Teoriz, arrazoi obeak dira dirudi aurrerazaleen erakaskizunak. Baiña Aita Santua, bat-batera, munduko artzaiña ta gizonen zaindari da. Gizona ezin leiteke teoriz artu, dan lez baiño: bere aunditasunaz eta makaltasunaz.

«Humanae vitae» aldatz-gora doala dirudi, baiña bide ori egizko bidea da. Betiko bizitzarako bidea estua dala, iñoan Kristok be. Aldatz gora, baiña ortik dator gizon osoaren salbazíñoa. Askorentzat ez da erreza izango enziklika onek dakazan gauzak betetzea. Baiña ez da bete ezin leiteken dotriña. Augaitik, Paulo VI'garrenak eskatzen dauku ikasteko ezer baiño lenago norberaren jabe izaten. Gure zeregiña Kristo'ren askatasunean ibiltea da, ta ez lasaikeria.

Mundua lasaikeri billa dabil. Oso ondo ikusten da ori zine ta nobeletan. Lizunkeriz beteta daukagu mundua, ta klima orretan, giro orretan ezin leitekez Aita Santuaren esanak bete.

«Humanae vitae» enziklikako esanak beteteko Aita Santuak diñosku Kristo'gana urreratzeko. Kristo'ren sakramentuak sarritan artzeko, Eukaristi santua ta autortza batez be.

Aita Santua, Kristo bezela, errukior ager-
tzen ya'ku. Kristok bezela parkamena eskin-
tzen dau. «Pekatuan jausten ba'zarie —di-
ñotse ezkonduer—, ez kikildu. Zoaze Jauna-
ren autortza santura, parkamena artzeko»
Eskumukatu barik, parkamena emon nairik
daukagu Aita Santua. Eleizatik jaurti barik,
Eleizaren parkamena eskintzen dau.

ENZIKLIKA ONERI OBEDIENTZIRIK BEARJ DAUTSAGU ALA EZ?

Katolikuen artean iritzi asko sortu dira
Batzuk aurka ta besteak alde. Biderik txa-
rra Eleizatik urtetzea da. Orrela ezertxo
be ezta egiten. Orduan ezin bidea zuzentzen!
be lagundu.

Beste bide bat artu dabe katoliku askok.
Bide ori erreza ta guzurrezkoa da. Onein-
tzat, Aita Santua bide okerrean dago.

Egia da ta begien aurrean euki bear *da*
enziklika onetan Aita Santuak ez dauala
irakatsi «ex cathedra», baiña ez da orregai-
tik, guzurrezko irakaspena. «Pacem in ter-
ris» eta «Popolorum Progressio» irakaspe-
nak ez dira «ex cathedra» egindako irakaspe-
nak; eta, alan da guztiz be, betetzeko en-
ziklikak ditugu. Aita Santuari obedientzia
zor dautsagu.

Niretzat bide bi baiña ez daukaguz kato-

likuok. «Humanae vitae» betetzeko bide bi,
ta ori Eleizearen berbea dalako. Batzuentzat
enziklika au gaurko denporako ondo dago,
baiña ezta azkenengo berbea. Orregaitik
denporeagaz barriztau-premiña eukiko dau.
Barriztau arte ondo dago, ta bete egin bear
dira berak dakarskuzan irakaspenak. Asko
dira bide au artu dabenak. Ez dabiltz oke-
rreko bidean, eta gaurko teologuen pentsa-
keran egoki dator. Eta ez dauko arrisku
aundirik bide onek.

Beste bidea ohea da. On-bide au artzen
dabenentzat, «Humanae vitae»-k dakarzan
erakaspenak onak baiña obeak dira. Ber-
tako erakaspenak ideak bat dirudi; alan da
guztiz be, askotan, gisonaren maikaltasuna-
gaitik ez dira beteko gauza orreik.

Ezta orregaitik enziklika guzurrezkoa.
Esate baterako, alkar-laguntza ta gizarte
zuzentasuna (justizia soziala) be ez doguz
betetzen oso sarri. Ezin baiña orregaitik
esan alkar-laguntza ta justizia sozial orrek
eskatzen dabezan agintzak guzurrezkoak di-
rala. Ez betearren, alkar laguntza ta zuzen-
tasuna beti daukaguz ernari. Beste ainbeste
pasatzen da «Humanae vitae»-k dakazan
erakaspenakaz be.

Azkenengo bide biak artu geinkez Aita
Santuakin bat egin eta Eleiza barruan joka-
tu nai ba'dogu, Kristo munduan argitara-
tzen. Aita Santuak bai bero bat emon daut-
so, ostera, maitasun osoari.

PIKONDOA

Latz, zakar ta itxusi dalako,
Bere adar guztiak txuri-beltz
diralako, maite det nik pikondoa.

Nere landan, *eun* zugatz eder daude:
okaran biribillak,
gereiz-ondo zutak
eta ale gorria daikarten sagar-landarak.

Uda berrian denak leiaka
loretan pinportzen dira,
pikondoaren ingurumari.
Eta gaixoak zurbil ematen du
egundo ere buru-leika biziz
jazten ez diran lakaiña okerre...

Origatik,
bere ondotik igarotzen naizenetan,
esan oi det, goxo ta alai
nere abotsa egiñik:
—Baratzeko zugatz guztietan
pikondoa det ederren.

Berak aditzen ba'dit,
mintzatzen nakion izkera
ulertzen baldin ba'du,
aren zugatz-anima eztian bai
kabi egingo duela goxoak barnetsu!

Eta, bear bada, aizeak gauean
aren adar-burua kulunkatzean,
pozez gaiñezka, ongilieari esango dio:
—Gaur, ba al dakizu?, eder esan didate.

Ibarbourou

AIN NOZU AUNDIA!

Ain nozu, ama, aundia! Kanean, ziur,
etzeunke zure semea ezagutuko.
Ortara egin bearra dozu, ama.
Buru-giltzak dagoneko
zidarrez eldu yataz. Eta zuk
etzeunke, aldia kondaira
egiterik, ezelan be naiko.

Baiña orrela da. Ain nozu aundia!
Azi egiten gara igarri barik.
Ta gauza batzuk ezin ditut
gura izanda be, ezta saiatu be.
Zer batzuk besoz-beso daukadaz,
neure gomutamenean, eriotzeaz.

Eta, dagoneko, lurpean dot
lur-gaiñean beste bizitza.
Au autortu bear dot naitaez.
Eguzkiak oindiño argi dagi.
Orain ez, esan dagiket egiaz.

Entzuna dot, erdizka beintzat,
lurak berea dauan musika.
Ez negarrik, ama, zure semeagaitijk.
Poztasun bakarra geratzen yako:
maiatzean, loretan arnastuko zaitu.

R. G.

Aurkibidea

Sarrera	3
-------------------	---

SORTZEA

«Azi ta ugald».—Gizona eta emaloimea—Eten gabeko lana.—Pekatua	5
Pozarren gatortzuz, Ama { <i>olerkia</i> }.	9

BIZIA EMAN

Ludi arrigarri bat.—Maitasuna azi ta ugaritu.—Ez gera aberats izango.—Seme-alabak izateko bakarrik ezkontzen ote da?—Ez gera tresnak.—Ezkonduen maitasunak bere eskabideak ditu.—Su-zoko bakoitzak bere deia du.—Ez-kontza, maitasunezko sakramentua dezu	11
Bizitz ezkutua (<i>olerkia</i>).	17

BIZIA EMATEA, ZER OTE DEGU?

	19
--	----

Larra'ko Amari (<i>olerkia</i>).	21
Egin dezagun gizona	24

EZ DEGU SEME-ALABARIK

Aurrik eza, gurutze.—Gure seme-alabak dira	25
Jainkoa Aundi, gizona aundiki (<i>olerkia</i>).	28

TXIKIEGIA OTE DEGU LURRA?

Gizadia aunditzen.—Oindiño ba-da lekurik lurean.—Lurra eztago sorki ta aberastasan gabe.—Lurra ez dago jendez beteegi.—Alere, milloika gizon go-seak dauzka.—Gizonen lanak mundua eraberritzen.—Elizak zer dio jaiotzak arautzeaz?—Oinarririk dira.—Elizak zer irakasten duen.—Jaiotz-arautzeari buruzko bide berezkoak.—Puntuak zeatz jarriaz	29
Larra'ko Amari (<i>olerkia</i>).	38

AITA SANTU PAUL VI'GARRENAK JAIOTZAK ARAUTZEA DALA-TA EGIÑIKO IDAZKIA

Bizia besteri ematea.—I. <i>Auziaren alderdi berriak eta Eliz-maixulzaren esku-bidea</i> . Auzia berriz ezarrita.—Elizari dagokion maixutza.—Ikasketa bere-ziak.—Eliz-maixutzaren erantzuna.—II. <i>Irakatsi-oiña?riak</i> .—Gizona erabat ikusita.—Ezkonduen maitasuna.—Bereizgarriak.—Erantzun bearreko amatasu-na.—Ezkon-egintzaren izate ta elburua.—Batasuna ta aur-lana: bi alderdi l:ana-eziñak.—Jainkoaren burubideetan zintzo jokatu.—Jaiotzak neurtzeko bide debekatuak.—Osasun-bideak legezko dira.—Antzu-aldietara jo diteke.—Jaiotzak gaizki neurtzetik letozken ondoren astunak.—Eliza, giza-balio egiz-koen babesle.—III. <i>Artzain-jokabideak</i> .—Eliza, Ama ta Irakasle.—Jainkoa-ren legea gorde diteke.—Norbere jabe izan.—Garbitasunaren aldezko giroa sortu.—Erri - agintariak dei.—Gizon jakintsuei.—Senar - emazte kristauai.—Etxe-bizitzen arteko apostolutza.—Osagille ta osasun-ardura dutena!—Apai-zai.—Gotzaiak.—Azken-deia	41
Baiezko enziklika bat	57
Pikondoa (<i>olerkia</i>).	61
Ain nozu aundia (<i>olerkia</i>)	62